

KOLDO IZAGIRRE

Mendekuak



Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 1987 Koldo Izagirre

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 1987ko azaroa

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

Iparragirre rides again

Apirilaren 6an agurea jezarrita zegoen itsasoaren aurrean. Ile luze zuria, kapelu zabaletik kizkurretan gainezka. Bularrerainoko bizar ugaria. Atzean Hendaia. Agureak gora jaso zituen begiak, biziak, eta Aiako Harrira eraman. Milaka zimur eskuetako eta aurpegiko larruazal errean. Mazarredoz oroitu zen. Altxa egin zen, soin oraino lerdena. Petrilean lotua zeukan zalditzarra askaturik oinez abiatu zen, galtzetan itsatsitako hondar ale bustiei ezajolati. Burumakurka zerrai kan zaldiak. Aurrerantzako keinuak egin zizkionten aduana postu bietan, eta gelditzeke gurutzatu zuen zubia. Irungo sarreran zaldi ganean jarri eta autobidearen bazterretik segi zuen. Yamaha Guitar FG-140 Nippon Gakki bat eta Winchester baten giderra ageri zituen ibilian lustreatutako zelaren alde banatan. Laxo utzi zituen bridak. Kapelua erantzi zuen, lurrezko pipa bat atera zuen barnetik, ahaleginak egin zituen metxa koi-petsu bat biztearren, jakaren sakela bakarrean gorde zuen haserre, dotoreziaz jantzi zuen kape-

lua ostera. Eguzkiak goitik bero. Pipa itzalia hortz horizatuen artean. Errenderiara iritsi zen. Jubilatua alamedan zeuden, eguzkitan, paperolak botzen zuen keari beha. Ez zitzaion inori bertsolari traza hartzen ahal. Ume batzuk jarraiki zitzaizkion zaldiari makilka. Agurea erdi lo zihoan, bizkar oker. Buenabistara heldutakoan busaren geltoki ondoan egon zen puska batean, San Juenera beha. Zaldiaren arnasak fistu egiten zuen. Arizabaloz oroitu zen. Ez zen ardirik ageri Jaizkibelgo malkarretan. Zaldia bere hankajoko geldoari tematu zitzaion. Agureak ez zuen presarik. Jendeak ez zien kasurik egiten. Maite zuen ezajola hura. Eguerdia zen Donostiara heldu zenean pipa biztu ahal izan gabetanik. Zaldia gelditu egin zen, aurrez agindutako helmugaren batera ailegatu balitz bezala. Agureak fusila atera zuen zelazorrotik. Kargatua zeukan erreparatu zuen. Abenidako kafetegiaren aulkietan jezarrita zeudenek ihes egin zuten. Mahai gainetan aperitif hustu gabeak, eta aulki berdean harrizurtua, sukar izerdian, gazte biboteduna. Han zuzentzen dio fusila, hots arraro bat entzuten da, segundu bat urrunago ke zuri bat kanoiaren muturrean

eta gizon gaztearen gorputza lurrean. Agureak artaz gorde zuen Winchesterra, jarraitzeko egin zion zamariari. Zenbait konsumitzaile utzi-tako aulkietara dator, jendeak paseoari ekiten dio eta euskal literaturaren kritiko gaztearen gorpuaren ingurua indiferentziazko hutsune bat da. Neska bilo horiak eskua ahora eraman zuen My God! esanez hildakoaren aurpegia ikustean. Zaldia motel zihoan, triste. Agureak zer edo zer leroileratu zuen. Carolinez oroitu zen. Pipa bizten saiatu zen alferretan. Lehorra zuen eztarria. Ahaire gautxo batzuk jo zituen kitarraz. Xamur egiten zuen erdaraz. Ahantzi egin zen Carolinez.

Ilunabarra zen Zornotza jo zuenean. Nekatuta zegoen agurea. Aurreneko tabernan sartu zen, euskaraz egin zioten. Aniseta hartu zuen. Jezarrita egon zen aldi bat. Azukre kozkorrak eman zizkion zaldiari. Gernikarantz abiatu zen.

Jende asko zebilen kalean. Junta Etxerako maldan gora hartu zuen: burdinazko hesian lotu zuen zaldia. Atea itxia zegoen. Hesian igan zen, ez zitzaioan zailegia iruditu. Aizkora bat atera zuen zelazorrotik, berriro itzulita. Hesia iragan zuen. Geldirik egon zen haritzaren aurrean, Lon-

donen ikasitako Wordsworth-en poema errezitatu zuen ahapean. What hope, what joy can sunshine bring to thee, or the soft breezes from the Atlantic sea, the dews of moon, or april's tender shower? Agureak tu egin zuen eskuetan, arbolarri hurbiltzen zaio. Jendea inguratu zen apurka, atea norbaitek irekia zen. Gazteak gehienak. Animoa ematen diote, adarra joz. Isildu egin ziren arbola amildu zenean. Txaloa egin zioten zenbait gaztek algaraz. Zaldiarengana hurbildu zen agurea, kantiplora bat hartu zuen. Taldeko batzuek alde egin zuten lasterka, zerbaiten abisu ematera. Kantiplora osoa ixuri zuen Junta Etxearen eskuineko pareta bazterrean. Poxpoloak eskaini zizkion neska batek. Berehala altxa ziren garrak. Honuntza iragan zituen burdinak. Zaldi gainean jarri zen, baldar. Maldan behera joan ziren biak. Oihu batzuk entzun zituen gibelean. Pipa biztu zuen. Bihar Urretxukoa, pentsatu zuen agureak. Poxpoloak eman zizkion neska polita zen. Su garbi batek gorritzen du Gernikaren gaua.

Gertakariaren lekuan bertan

Bizenta Iratzekoak maiz zion gomentatzen bide hartan bertan, alkatzia luze paren ondoan gutxi gora behera ateratzen zela zaldien hankapera Zapiraindarren zaharrena haur gaxoa besoetan zuela goizero, eta merkatutik honuntzakoan eskaini egiten zien. Ama, ezagutu zuen berak, emakume galanta zen baina, hogeitertan ume egiten arituta zortzigarren hark beste mundura bidalia zen.

Sailka etorten omen ziren orduan, orain baino gehiago, Polloetik barrena, denak marmittak hutsak eta asko titiak betean. Eta zazpi emakumeren bularrek hazitako ume hura, Juan Krutz, bertsolaria egina zen, eta Santa Jenobebaren bizitza jarri berria zuen ehun eta hirurogeitahiru bertsotan. Sarritan kantatzen zituen Bizentak bidean. Ozen abesten zuen, garbia zuen aboza, eta bi gurdi atzeragokoek entzuten ahal zioten.

Madalenek ere segitzen zion aldizka, baina txarra zen bertsoak buruz hartzeko.

*Azkeneko aldiz Golo Juan zan
amorratuba bezela:*

Goiz erdi aldera hasi zen zurrumurrua hirian zabaltzen, alegia Polloe kanposantu inguruan ondiko lazgarri bat zela gertatua, bi protagonisten bizia eramanez.

Aurreneko batean albistea ohizko nahaspiletan jantzia bazetorren ere, gerora argituz joan ziren non-nolakoak, eta jakin ahal izan zen gertatutakoa amodiozko drama bat zela.

Bai hala ere, errauts erretenaren antzo zabaldu ziren berriak ez zeuden gertatutakotik hain urrun.

Talde, tertulia eta merkatu zoko guztietan, San Martinekoetan batez ere, hildakoak hantxe saltzen zuen eta esnea egunero, gomentarioen gaia idazten ari garen gertakariaren albistea zen.

Esaten zena, eta hala izan gainera, 25 urteko mutil gazte batek, amodiozko gora-beherak zirela eta, su egin zuela 20 urteko andregaiaren kontra, Martutenekoa bera, zerraldo utzirik bertan,

eta ondoren, ehizako eskopeta bat erabilirik, bere buruari eman ziola tiro.

Albistearen interesgarriagatik eta gertatutakoaren larriagatik, trajediaren gertalekura abiatu ginen doilorkeria zitalaren xehetasunak jasotzearren.

GERTAKARIAREN LEKUAN BERTAN

Martutenera ailegaturik eta Altzarako bidea hartuta, bidezihor batek zenbait baserri dauden parajera garamatza. Haietako batean bizi izan zen gertakariaren protagonista, Magdalena Arrieta, bere amarekin, Eujenia, orain hiru urte alargundua, eta bere anaia Alberto, José eta Migelekin.

Baserrian sartu orduko mutiko batek Magdalena dohakabea hilotzik datzan gela erakusten digu, Jose Andrés Elustondo, 25 urtekoa, hemen-dik ordu erdira, «Errekatxo Goikoa» baserrian bizi zen bere nobiaren biktima.

Gaztearen gorpuak ezagun talde handi bat zuen inguruan, bizi zelarik pozik tratatu zutenak,

zeukan izakera apal eta zerbitzalagatik. Denek gaitzesten zuten hilkintza landerra, laztura handi batean.

Zorigaiztoko Madalenen ahizpak, familiarte-koek hala esaten zioten, zintzo erantzuten digu egindako galdeei eta atzo goizean gertaturiko sarraski izugarriaren aurreragoko datu interesgarriak ematen dizkigu.

TRAJEDIAREN AURRERAGOKOAK

Jose Andrés Elustondo eta Magdalena Arrietaren arteko maitasun harremanak duela hiruren bat urte sortu ziren, gure erantzulea dugun Isabel ahizparen ezkontza zela eta.

Ez ziren ongi konpontzen hala ere, eta Elustondoren izakera zakarragatik, maiz izaten zituzten liskarrak beren artean, batez ere iaz, dirudie-nez, neskak ezezko borobila eman zionean.

Halaz guztiz ere, ez zen Elustondo otxandu eta berriro hasi zen neskaren jiran, eguneroko lanetik honuntzakoan lagun eginez, izan ere goizean Donostiako San Martin merkatuan egiten

baldin bazuen lana, arratsaldez Ergobiako etxe batean aritzen baitzen josten.

Ez zuten neskaren familiakoek ezer berezirik nabaritu joan den asteko ostegunera arte. Madalen guztiz goibeldurik eta etsita heldu zen egun hartan baserrira, tristuraren zergatia ezkutaturik, ostiralean handitu egin zelarik, eta areago larunbatean. Baina Madalen mututu egiten zen, berez ere isila izaki.

*Zenbat denbora itxoingo ziyon
kontu atera zezala...*

Lehengo igandean, goizero bezala, San Martingo merkatura abiatu zen betiko orduan Madalen gaztea, begitartean salatzen zuela aztarrendu mingarriren bat.

Goizeko hamarrak aldera ikusi zuten nobioarekin hizketan zakar eta gordin, Merkatuko atean, laneko lagunak bizirotatu zituela.

Baina goiz osoan negar batean, kupida sustatzeko moduan atsekabetua eta eroria ikusi behar izan zutenean helduko zen bizienera lagunaren kezka. Galdetu zioten zergatik hainbeste zotin,

eta gazteak, malkoek urpetua eta galdeek hesitua, ezin gorde izan zuen arima nahigabe gorritan ziztatzon arantza ikaragarria, eta Rufina lagun minari aitortu zion Elustondok 48 orduko epea ziola emana erabakia hartzeko, eta ezezkotan, ematen ahal zuela bere burua hiltzat.

Hauxe izan zen nobioarekin izan zuen elkar hizketaren ondorio garratza, Merkatuko atean.

KRIMENAREN BEZPERA

Astelehenean, lanetik etxerakoan, esan dugun bezala Ergobiako joskintzatik, malko errontan negar eginez itzuli zen baserrira.

Bere ahizpa Isabelek tinko eta gogor egin zion galde oraingoan zer zen halako samindura, inolako erantzunik lortzeke.

Orduan, Domusantu Egunean estrainatu behar zuen berokia josten segitzeko agindu zion xamur. Orduantxe lehertu zen gaztearen arima, zurbiltasun ikaragarrian esanik: «Zertarako berokia josi, hil egin behar banaute?»

Ondoren esan egin zion ahizpari, pentsatze-koa den izialdura neurgaitzarekin, nobioak bezperan esandako bidegabeko epea eta hiltzeko zemaizitala, «Elustondorekin ez zuela ibili nahi eta eta ez zela ibiliko» gaineratuz.

Madalenek esan zion Rufina lagun minari goizean merkatuan: «Bihar konfesatzera eta komulgatzera joango naiz!»

Hurrean somatzen zuen heriotzea, baina nobioaren esku sarraskariak ez zion utzi Jaungoiko-arekikoak egiteko nahi zinezkoa kunplitzen.

*Ai, Jenobebak erantzun ziyon
ura mudatuko etzala*

Goizeko zazpiak eta hamarretan irten zen bere baseritik Madalenek gidaturiko gurdia Donostiako merkaturantz, beste egunetan bezalaxe.

Atzetik zihoakion «Iratze» baserriko etxe-ko-Andrea, hildakoaren auzoa, bere gurdian.

Ez zuen hogei metro baino luzeagoko bidea eginen Madalenek, non bazterreko alkatziaren orpotik ustekabeen sortzen den Jose Andrés

Elustondo, Magdalena Arrieta errukarriaren senarnahia, gurdiak geldi eraziz.

Elustondo Madalenen gurdira hurbildu zen, eskua ezarri zuen kartolan, bestearekin ehizako eskopeta eusten zuela, eta Madaleni latz hitz eginez, sententzia eman zuen: «Bete dira 48 orduak!». Neska gazteak bere ezezkoan iraun zuen setatsu, eta eztabaida garratzean aritu ziren biak hamar minutuz.

Bitartean, Bizenta Sagastume, ondiko lazgarraren lekuko bakarra, atzeko gurdian zetorrenak, behin eta berriz esaten zion neskari aurrera segitzeko, Elustondori kasurik egin gabe.

Horretan direla, etsita, nobioak burutu egin zituen bere asmo beltz ankerrak, bertatik bertara, erropa-erre, tiro emanda, zauri larriak eginik neska gazteari besoan eta bularrean, zazpiko kartutxoarekin.

Neskak ikarazko intziri bat egin zuen, eta gurdiaren ezker aldera etzanda gelditu zen. Bizenta Sagastume, ezin asmatuzko izuarekin, ustez eta bigarren tiroa beretzat izanen zelakotan, oihuka hasi zen eztarria urratuan oldargile basatiari. Honek, zurbil, zoro eta ausart, burura

eraman zuen kanoia, eta apunteak huts eginik, zauri azaleko bat baino ez zuen egin.

Elustondo, urratu arin batekin eta kartutxo eskasean, bere baserrira abiatu zen lasterrean, eta ordu erdi baten buruan, ostera Madalen zorigaiztokoaren etxe aurreko zabaldegira etorririk, eta odol hotzean, tiro bat eman zion bere buruari, zauriak garunak eramanik, berehala hilteko.

Horrelako modu mingarri eta izugarrian izan zuten azkena amodiozko grinek ekarritako liskarrez eta sesioz beteriko historialak eta bi bizitza gazteok, loretan galduak.

LAGUNTZA OIHUAK

Bizenta Sagastume, ondiko lazgarriaren lekuko bakarrak, oraino izaturik, lasterkari eman zion herio-suhar eta laguntza oihu asaldagarriak eginenez.

Hilkintza landerraz ohartu zen aurrena Bizentaren seme bat izan zen, eta honek, zaldia hila izanen zelakoan, labana eskuan heldu zen arreak moztearren, baina Madalenen gorputz eroria

ikusitakoan, orru lazgarri bat egin zuen. Eraman zuten arineketan baserrira, eta han sakona eta ezin esan halakoa izan zen familiaren lantua.

*Aserretuta esanaz juan zan
illeraziko zubela*

Madalen bizi izan zen oraino pixka batean, arima Jaungoikoari emanik goizeko zortziretan.

Lehendabizikoan Erreformatorioko kapelaua etorri zen, eta geroago Martuteneko apaiza Don Gregorio Arzallus eta Altzako erretorea, Olio Santua eman ziotenak.

MADALENEN DATU GEHIAGO

Madalenen ahizpa Isabelekin eta «Iratze» baserriko etxeakoandre Bizentarekin hitz egiteaz gain, izan genuen elkar hizketa bat Lucía Gonzálezekin, atzoko gertakari trajikoaren protagonistak esnea ematen ziona.

Lucía Gonzálezek esan zigunez, behin baino gehiagotan esan omen zion Madalenek, honen

galdeei erantzunez, Elustondok ez zuela betetzen, eta inoiz ez zuela maite izan eta ez zuela maite izanen.

Halako batean -dio Lucía- Elustondok «sandwich» bat eskaini zion neskari, eta baita Madalenek arbuiatu ere azkar.

GOMENTARIOAK

Atzo goizean aipatutako hilkintza ikaragarriak eragindako gomentarioak zenbagaitzak baldin baziren, arratsaldean ere ez ziren urri gelditu.

Irakurleari eman dizkiogun xehetasun guztiak bildu ditugun gertakariaren lekuan bertan, dolu mugagabez eta etsipen biziz gomentatzen zen maita-grinezko tragedia mingarria.

Amaitzeko, ez da beharrezkoa izanen noski, iritzi gogorrenak moldiztegiara ditzagun gertakari anker hau gaitzesteko. Gertatutakoaren adierazpenak eta Elustondo gaztearen zoramen deitoragarriak alferrikakoa egiten dute gainerako gomentariarik.

Deitora dezagun, hala ere, gertatutakoa, protagonista familia biei gure doluminik benetakoenen bidalirik.

Eta Jaungoikoari nahi dakiola jaio ginen eta hil nahi genukeen gure euskal lur honetan, ez daitezela aurrerantzean gisa honetako gertakariak jazo, higuintzen dutenak idazten dituen eta irakurten dituenak.

*Komeni zaigun ixtoriya bat
kantatu a! bageneza...*

Bizenta Iratzekoak maiz gomentatzen zuen San Martingo merkatuan bidean bertan, eta ez Donostiako kazetariak jarri zuen moduan, semeak Santa Jenobebarena bezala irakurria baitzion Santuene aurreko zabaldegian izan zelakoa, beherago baizik eman ziola tiro bere buruari Errekatxo Goikoako zoro hark, alkatzia luze haren orpoan hain zuzen, Zapiraindarren zaharrena haurra besoetan bezala eseri egin zela lasai bizkarra arbolaren kontra jarrita, eta luzea zuen eskopeta eta, aurrenekoan ere horretxegatik huts egin zuen, ezin menakari eman eskope-

taren kanoia buruan jarrita, ez heltzen eskuarekin, eta adaska xardedun baten bila ibili zela bazterrean, eta harekin eragin ziola.

Semea bidali zuen zihoala segituan Errekaxo Goikoara abisu ematera, bi anaia mutilzahar bizi ziren han zein baino zein, eta anaia heldu zenean hantxe zegoen Jose Andrés eserita alkatzia luzearen orpoan lasai, berak ez baitzuen ukitu artean, adaska eskuan eta odolak lepo kolko guztia gorritzen ziola. Orduan Mateok, biak ere zoroak ziren eta, bururatu egin behar gizonari, halaxe esan zion: «Zer moduz Sanferminetan Jose Andrés?». Bezperan izan.

Bizentak maiz gomentatzen zuen bide hartakoa bartakoa, alkatziaren orpokoa hain zuzen, eta zenbaitetan «Dotore hago pañuelo berriarekin!» esan ziola Mateo Errekaxo Goikoak anaia hilari. Zein baino zein baitziren biak ere, zoroak. Maiz esana zion Madalen zenari, Madalen gaxua... Santueneko guztiak ere... Eta Santa Jenobebaren bizitza kantatzeari ekiten zion gurdia marmita hutsez bete orduko kazetariak pape-rean hartu nahi izan ez zuen kantu hura:

*Azkeneko aldiz Golo jua zan
amorratuba bezala...*

Etxeberri

I

Nik esan behar banu, ez nuke esanen Manuel gizon zintzoa ez denik, baina azken egunotan gertatutakoak eta, ez dakit, susmoa hartzen ere hasia naiz udan izandako sua ez ote zen izanen... Badakizu, kartzelan sartu zituzten aita-sumeak eta Sangarrengo baron jaunak berak atera zituen, gaizki pasa beharko zuten bestela, gaineko solairu guztiak behean jo zuen, ganadua larrean zeukala hartu suak gainera. Kasualidadea.

Manuel pobrea zen orduan, hona etorri eta baserria jaso zuenean Sangarrengo baron jaunaren amak, San Millango markesak, emandako lurrotan. Ezkonberria orduan, eta etxean bizibiderik ez, berak karea eta harria garraiatu eta jasotzen lan egin, eta markesak berriz zura erosi eta ofizial bat ekarri zuen Etxeberri egiteko. Txikia da, baina badaude itsusiagoak. Manuelek berak esanda dakit nik tasatu egin zutela hamasei mila

errialetan, eta erdi bana izatekotan konformatu omen ziren markesa eta biak. Orain markesa zaharra dago, alargundu zenez gero ez du onik izan gainera, semeak daramatza aspaldian gauza guztiak, Sangarrego baron jaunak.

Ni haien aginduetara nago, ni ez naiz politikan sartzan, eta hobe dute nire izena ahotan ez hartu. Bai, ongi ezagutzen ditut bazterrak nahastent dabiltzanak, inor ere ez lasaotarrik. Hortik atera kontuak, hemen denek ezagutzen naute. Ni ez naiz tabernan marmarrean egon zalea, batzuk goiko eta besteak azpiko, hala egin gaitu Jainkoak, nagusiak batzuk eta Manuel maizter. Halaxe esan nion nik berari, eta sutan jarri ez zitzaidan ba, ez nintzen bakarrik gainera, markesaren agente berri honek euskaraz ez daki baina, esanen dizu hark ere galdetuz gero. Nik, botazioak daudenetan egin izan dudan bezala ajenteari lagundu baserrietara, eta orain, berri honekin, erdaraz ez dakitenekin hitz egin, alegia, San Millango markesak, eta bere semeak, Sangarrego baron jaunak, Manuelen etxearen jabeak alegia, eskuinari eman behar ziotela botoa.

Eta nola jarri gizona, sekulan holakorik. Eta egizu kontu larehun baserri dituela markesak, eta ezta bakar batean ere. Aizu, ajenteak jakin egin nahi zuen, beti bezala, eta ez besterik. Ea ba markesak ez diezaiokeen botoa nahi duenari eman. Zera, eta Manuelek ere bai noski, hor konpon bakoitza.

Orain harroaldi handia sortu da Manuelek Etxeberri utzi behar duelako, baina zuk ere jakinen duzu, alferrik ibili direla tribunaletan. Noski, Manuelek ez zuen pleitura joko azpeitiarrek erabili izan ez balute abokatuekin eta, baina zer esan dute juzgatuan, markesa bere lurraren jabea dela eta Manuelek utzi egin beharko duela baserria. Aizu, eta gainera markesak zortzi mila errialak eman dizkiola.

Gobernadorearengana ere joanak dira, Azpeitikoek eta politikoez eta Manuel bera hartuta, eta han ikasi behar izan dute markesaren semeak, Sangarrego baron jaunak, ez duela etxea uztera behartuko botazioak egin arte. Mugitu dira alajainkoa, eta Don Justok berak esana dit Obispuarekin ere egonak zirela, baten batzuek beti izaten baitituzte lanak eginak. Ja, esan

dizut larehun baserri dituela markesak. Zenbaitzuk uste duzu egin dutela bat Manuel Etxeberrikoarekin. Jakina.

Begira, ni konfiantzakoa bainaute, askotan hitz egiten dute nire aurrean, eta zenbaitetan galdetu ere bai, eta ez pentsa beti algara egiteko moduko erantzunak ematen dizkiedala, eta aurreko batean jira eginda zaldia sartzen ari nintzela beren artean hartu ninduten markesaren semeak, Don Justok eta markesaren abokatuak, Pagoaga jaunak, deputatuak, eta han ari ziren baietz eta ezetz eta markesaren semea eta Pagoaga jauna kapelauaren aurka alegia ez zela komeni Manueli botazioak baino lehen etxea utzaraztea, hustutzen ere hasia zen lehengo astean eta markesaren semeak lasai egoteko esan zion, itxoiteko oraindik, eta kasikan behartu egin zuen traste ateratzen ez jarduteko.

Markesaren semeak, Sangarrengo baron jaunak, eta Pagoaga jaunak, deputatuak, gogor egiten zioten Don Justori, eta markesari buruan sarerazi behar ziola ez zela komeni Manuelek etxea uztea botazioak baino lehen. Eta Don Justo setan, ezetz. Pagoaga jaunak esaten zion orain-

goetan bat ez ezik, larehun boto gutxiago jasoko zituela horrela egitera. Eta orduan inguratzeko, eta galde egin zidaten, nik ezagutzen nituela baserritarrak eta. Nik, errespetu guztiarekin, hobeto ezagutuko zituela Don Justok, beren pekatu eta guzti. Eta ez zuten irrifarre egin bestetan bezala, larri zeuden. Ni Don Justo eta markesaren aldeko. Hamaika artaburu mantentzen baitu ogiak, ni uste horretakoa naiz, eskarmentua behar dugula. Bete dadila tribunalak esan duena. Eta lehen bait lehen kanpora. Nik ezagutzen ditut baserritarrak eta bakoitza bere etxekoa da, inor ez da sartzen besteren mahaian agintzen, eta gutxiago politikako saltsetan: Seguru ote nengoen eta nik irrifarre egin nuen. Eta garbi esan nien pentsatzen nuena, horretarako komenigarria izanen zela azpeitiarrak lotzea, Martin Beltza batez ere, jendea harrotzeko balio duena baita. Eta orduan baietz, baina nola, zer iruditzen zitzaidan egin zitekeela galdetu zidaten, eta nik arestian esan dizudana bera esan nien, ez nintzela politikan sartzen, nahikoa nuela nik neure lanarekin. Eta orduan irrifarre egin zuten denek, eta tira, tira, Don Justok, eta mar-

kesaren semeak barrena pasatzeko eta mahaian jartzeko esan zidan, eta Pagoaga jaunak berriz ea nor nintzen, eta bizkarrean jo eta bere aurretik sarrarazi ninduen. Afaldu genuen laurok, eta Martin Beltzaren bizimoduaz eta galdezka jardun zitzaizkidan eta soldata handiagoa jasotzeko aukera eder bat eman behar zidatela gomentatu zuten beren artean.

Nik erdaraz oso ongi dakit baina hitz arraroak eta badakizu jaun horiek nola dauden ohituak, ulertu ez nituen gauza asko esan zituzten. Eta ajente berriarekin hitz egin eta berriro bildu behar ginela esan zidaten.

Ni San Millango markesaren monteroak naiz. Sanmieltxiki esaten didate.

II

Begira, Etxeberriri su eman ziotelakoa eta gezur hutsa besterik ez da. Susmoa har dezakezte nahi dutena, orain harrite guztien kulpante egingo baitute Manuel, baina Etxeberri halamoduz egina, ahula, markesak ekarritako ofizialak

asko lagundu ere ez Manueli etxea jasotzen, orduan. Halako aditzera daukat nik, artean ume kozkorra nintzen eta. Gogoratzen naiz, hau dena baso itsua zenean, makina bat lan egin behar izan du hemen baten batek. Ez markesenekoek jakina. Aizu, zuk jakinen duzu noski, markesa titulua aspaldian debekatu zutela Gipuzkoan erabiltea probintziako Juntek. Ba nahi baduzu Manuelek berak esanen dizu, joan den udan euliak ikuilutik ezin botarik nazkatua zegoela, eta ferian entzun omen zuen oso ona izaten zela sua piztea, eta keak berehala uxatzen zituela. Biztu du sua, eta zer dek eta, goiko solairuak su hartu, ahula Etxeberri hau, eta eskerrak aita semeak azkar ibili ziren, bestela etxe osoak igual. Ba kartzelan sartu markesak, horixe markesak. Bai, semea ez du inozoa, eta badaki hobe dela maizterrekin onez onean, eta han joan behar izan zuen ateratzeko eskatuz. Baina ez zituzten libre utziko kulpanteak juzgatu izan balituzte. Zera, ganadua ere kanpora atera zuela propio, markesaren partea bakarrik hondatzeko, eta zer nahi duzu, hori ez dizu baserritar batek esanen, uda gorrian behiak ikuiluan itxita eukitzea. Eta kar-

tzelatik aterata fama hartu markesaren semeak Azpeitian, gizon jatorra omen alegia Sangarren-go baron jauna. Hemengo lege zaharrearan ez zegoen ez markes eta ez baron eta ez konde. Bere eskuz, bere eskuz jaso zuen baserri hau Manuellek, eh Manuel.

Lau egurtzar ekarri zituela eta ofizial mozkor bati ordaintzeagatik etxea erdi bana egin behar. Eta berak bere eskuz egindako etxearen jabe egin nahi badu, zortzi mila errial eman behar markesari. Inork ez dio esaten lurra berea ez duenik, baina etxapea, hori, gizona etxapetik botatzea, gibela behar du.

Jakinen duzu noski zergatik bota nahi duten etxetik. Ez da oraingo kontua. Hemen Errepublikak etorri zenez geroztik botazioak baitaude libre, ez lehen bezala, nik aditzera dudanez lehen ere baziren baina, bestelakoak, eta morroiek ere nagusiaren deputatuari eman behar botoa. Eta zer egin dute orain arte, ba botazio aurretik etxez etxe bidali ajentea, ea nori eman behar dioten botoa galdezka. Eta badakizu, baserriarrak umil, kottau, ez zekitela ba, politika gauza horiek zailak zirela eta. Orduan ajenteak, hola, xamur,

ba markesak halakoari eman behar ziola eta, komenigarria izanen zela ba markesaren gauzak ongi joatea denen onerako ere. Izan behar baititu larehun baserri edo gehiago.

Eta etorri dira ba besteetan bezalaxe Manuelengana, ajente berria oraingoan Sanmieltxikirekin, eta monteroa galdezka, eh Manuel, erdaraz ez dakizulakoan, eta mindua baitago Manuel udako iskanbilarekin eta semea ere gureetakoa baitu, zer uste duzu, horregatik eraman zituzten kartzelara. Ba esaten ahal ziola markesari berak ez ziola botoa eman behar Pagoagari. Eta nola uste duzu jarri zirela Sanmieltxiki eta ajentea, ulertu zuen euskaraz orduan bai. Orain libreak omen dira, baina ez dira libreak botazioak. Garai batean hemen ez zuten jauntxoek botorik aizu. Hori jakinen duzu zuk ere.

Eta orduan zer dek eta, etxea utzi behar duela Manuelek. Markesak berak erabili nahi omen ditu lur hauek alegia. Igual ikusi beharko dugu Sangarrenko baron jauna uztarrarian lotuta San Millango markesak goldeari eusten diola baratzan izerditan. Baina orain akabo dira lehengo mehatxuak eta nagusikeriak. Manuel Etxeberri-

tik bota nahi badute, ez da lur hauen premia dutelako, Manuelek botoa guri eman behar digulako da, eta ez besterik. Mugitu egin baikara, komeriak dituzte orain. Uste zuten, gure Manuel umila baita, kottauegia aukeran, beragatik isil isilik aterako zela Etxeberritik, bere eskuz jasotako etxetik zera, baina orain ez da lehen, orain baserritarrok bildu egin gara, eta indar egiten dugu. Gobernadoreak berak aizu, gobernadoreak berak esan behar izan dio markesari pakeagatik hobe duela Manuel bertan lasai utzi. Baina markesa egoskorra da, eta hor dago Pagoaga beldurrak, ea Manuel kale gorrian ikusita gainontzeko baserritarrek ez dioten botoa ukatuko. Semea ez, semea zuriagoa du, hezurak gogortu gabea oraindik, eta lehengoan bera etorri zitzaien lasai egoteko esanez, ez aldegiteko, itxoitako. Baina ongi dakigu eh Manuel, botazioak pasatakoan kalera, orduan ez baitie izanen errespeturik maizterrei.

Gainera ez da markesa bakarrik, gozoa da holako gauzetan Don Justo ere, kapelaua. Hori gutxieneko karlista porrokatua edo, sotanape ilunekoa behintzat. Egizu kontu enziklika guztien

kontra jarduten duela horrek, baserriz baserri ez da ibilten ba kristauak ezin diezaiokeela botoa kristau zintzoei besterik eman eta. Noski, nor uste duzu dela hemen kristau zintzoa. Sutara besteak. Ba gu ez gaituzte menderatuko nolana- nahi eh, jota zer egin genuela uste duzu, Obispuarengana joan. Bai bai, zer arraio, Azpeitiko erretoreak berak esaten ez dituenak botatzen ditu Don Justo horrek eta, hartu eta Obispuarengana. Eta ez dut uste batere gustora hartu duenik kapelauak ateratako nota hori, irakurriko zenuen noski izparringian, Bikario Jeneralak egin- dako idazkia, alegia eskuineko blokea bezain ka- tolikoak garela gu, eta bietako edozeini ematea libre duela katolikoak. Hor hartzen dute min hauek, uste zuten Jainkoa berea zutela, eta kato- liko guztiak morroi.

Markesa eta barona eta horiek, horiek, ezke- rrak berak baino boto gehiago eman dizkiote ho- riek reboluzioari. Eta hori ezin liteke ametitu. Ho- rretarakoxe gaude gu, ez eskuineko eta ez ezke- rreko. Euskaldunak.

Eta gauza bat esanen dizut. Oraindik ere ez dituzte tripakomin guztiak pasa. Tribunalek era-

baki dute ezta Manuelek etxea utzi behar duela bai, ba berehala utziko du. Botazioak baino lehen gainera, eh Manuel. Eta eskuinekoek ez dutena baitugu guk, gizalegea, gureetako jaun batek, asko ahal duena, baserri bat eskaini dio Manueli hantxe jartzeko eta lur sail ederrak lantzeko, Loiolako horretan. Hori da gizalegea. A ze ipurdikoa eman behar diogun markesari, eh Manuel.

Ni Nekazari Bazkunako ordezkaria naiz Azpeitian Martin Beltza esaten didate.

Babarruna

Babarruna hainakoxe karetxa zeukan lepoan. Alkandora lotuta ere ageri zitzaion, ile artean boroibil eta higuigarri, morea neguan eta gorriska udan. Babarruna esaten genion. Hila behar du honez gero. Gaiztoak ginen. Gazteak. Moro talde bat harrapatuta gasolinaz busti eta su eman genien Bermeon, kontatzen zuen Babarruna tenienteak toteltzen zen aldiro. Maiz toteltzen zen Babarruna. Lanbide latza zuen. Zutik aguantatu behar izaten dira betekadak, familiarik gabeko tabernari alarguna izanez geroz. Baina azken aldera, nik ezagutu nuelarik, arratsaldez bakarrik irekitzen zuen.

Bizkaitarra zen, eta gure herri puta hartan gudari bakar bat ere ez zegoela aipatzen zigun maiz. Tira tira Babarruna, esaten zioten nire anaia zaharraren kuadrilakoek eta, konfiantza-koek. Hi, hi! Ni alemanak afusilatutakoa nauk! Hori erdaraz esaten zuen, nire anaia zaharraren kuadrilako inork ez baitzuen euskaraz egiten orduan, eta berak ere, Babarrunak, ez zuen egin

nahi izaten. Ez zekiela esaten omen zioten, farre egiten omen zioten. «Hango moruen itxen dot nik, txarto» esaten zigun gazteoi. Guk galde egiten genion gerraz, eta orduan berotu egiten zen, bazekien jakin-mina genuela, eta hire aita bezalako traidore guztiek ahoa bete zingurri egon behar lukete aspaldian. Nik ez nuen aita defendatu nahi, baina Joxe, zuk nola dakizu, Bermeotik hona etorrita...? Eta hamar urte marina merkanten eginda, baina berdin duk, hi mukitzu alu bat besterik ez haiz eta. Gauza asko entzuten da tabernan. Baina, Joxe, zuk beti diozu herri honetan ez dagoela gudari bakar bat ere, nolatan dakizkizu traizioak! Gauza asko entzuten da tabernan. Herri puta honetan, egia esanen diat, txaketa aldatu nahi duen putakume asko. Eta besotik heltzen zidan. Ulertu? Eta berehala zai asper-tuta oihuka ari zitzaion beste kuadrila bati zerbitzera abiatzen zen, oihuka bera ere.

Legalizatzeke zegoenean, asanblada egin zen elkartean, zer egin behar litzatekeen aztertzeko. Zeremoniarena antolatu xamarra gelditu zen. Inork ez zekien nork jaso zezakeen ikurriña. Botorik gehienak, herriko preso izandakoek pro-

tagonismorik nahi ez zutenez, umeren batek, esku inuzenteren batek jasotzeko aldekoak ziren hasiera batean. Etorkizunaren eskua. Baina hor Nekane oso ongi egon zen. Hainbeste odol kostatako ikurriñak, borroka eta erresistentzia ordezkatu zuen esku batek jaso behar zuen. Eta denok baietz esan genuen. Herriko preso etorri berriek burua makurtu zuten. Gabrielekek malkotan zituen begiak. Biharamunean segitezkotan gelditu ginen.

Babarrunarenean afaldu genuen taldekoek, asanblada nola bideratu behar zen eztabaidatzeko. Neskek, eta batez ere Itziarren amak, etxean prestatutakoa afaldu, ez guk dirurik sobera eta ez Babarrunaren tabernak sukalderik. Baina herriko txokorik patxadatsuena berea.

Kafeak eskatu genizkion, eta Babarrunak atea itxi eta gurekin jarri zen mahaian, eta beti bezala zer bilera ilegal ote genuen gure artean. Orduan Nekanekek ateraldi zoragarri hura izan zuen. Begira Joxe, herri honetako asanblada subiranoak erabaki du, gaur arratsaldean bertan, zuk jaso behar duzula udaletxean ikurriña. Eta euskaraz esan zion, Nekanekek menderatu berria

zeukan batuan. Niri behintzat zoragarria iruditu zitzaidan.

Babarruna altxa egin zen, eta munduan zehar kamarero ibilia zen merkantearen oleoaren pean zuen kafetera ostean ezkutatuta, ni ez, ni ez, ez al duzue guapoagoren bat lan horretarako. Orduan Xabik ironiaz behatu zion Nekaneri, baina niretzat zoragarri. Gau tristea izan genuen.

Biharamonean bakandu egin ginen asanbladaratuak. Ez zen eztabaidarik sortu, denok geunden ados zaharren batek jaso behar lukeela, atzokoak eta gaurkoak bat eginik. Baina inork ez zuen izenik proposatzen. Ez dakit, Nekane amorratua zebilen baten bat aurkitu eta programa multikopiatzeko, eta Jauregi esan zuen. Zein Jauregi. Jauregi lokomotoran ibilitakoa, jubilatua. Xabik esan zuen hobeto zegoela Babarruna proposatzea baino, eta jubilatuen egoitzara joan ginen ia denok.

Jauregi arratsaldero porroia aldamenean zuela kartetan jarduten zuen haietako bat zen. Nik ez nuen inoiz berarekin hitz egin, eta orduan entzun nion lehen aldiz. Beti zeukan adaska bat

ezpainenetan, Babarrunak babarruna lepoan bezala, horretxegatik egiten zitzaidan ezaguna. Eta berehalakoan esan zigun baietz. Nik edozer gauza, Jauregik erdaraz Babarrunak bezala, goiherriarra omen zen baina. Malatesta bataloikoak izana zen.

Nekaneren amak etxean gordea zeukan. Txikiak berak emana ziola esan zigun. Zetazkoa zen. Gauean aldatu eta beste bat ipinteko esan zigun udaletxean, ez zuela galdu nahi, seguru zegoen gauean polizia etorri eta erre egingen zutela. Orain legalizatua dago ia, ama. Baina ez zuen galdu nahi. Etxean gordea edukitzeko, ama. Baina itzultzeko lehen bait lehen.

Jauregi hantxe zegoen, alondigan zai, beti bezala gabardinadun, adaska bat ezpainenetan, nik edozer gauza esanez alkohol lurrun batean. Non dago trapua. Xabik zehatz esan zion zer egin behar zuen, nola izanen zen zeremonia. Udaletxe aurrea herriko elkarte fotografikokoek hartua zeukaten. Bazetorren jendea. Orriak banatzen hasi nintzen, tristeia izanen zen abesten hasi eta inork ez segitzea. Egia esan nork irakur zezakeen euskaraz gure herrian. Baina kanta ezagun

xamarra egin zen ordurako, jaialdian ez ezik
irratian ere entzuten hasia zen. Mordoa neukan.
Ez jende gehiena ibiltzen zuelako, baina plazatik
hurbilean, eta Babarrunarenera jo nuen. Ale ba-
tzuk utziko nituen inguruko tabernetan. Polizia
munizipal bat besterik ez zegoen barruan. Eman
egin nien orri bana. Aizak hi, esan zidan erdaraz,
zuek puta idearik ere ez herri honetan nor zer
den, eta besotik heltzen zidala, «hori, Jauregi
hori, hori ez dok inoz geuretarra ixan!». Nekane
sartu zen. Etorteko, hasiak zirela. Mostradorean
utzi nituen orriak, eta Nekane besotik helduta
kanpora neramala Hator Hator Euskadira entzun
nuen zetorrela udaletxearen aurreko multzotik.

Larruazal berrian

Zure aitak ezin izaten du luzaz iraun isilik, baze-nekien goiz edo berandu eman behar ziola bide bere amorruari. Eta galde egin dizu, jakinen duzula noski gertatutakoa, gaur ere klasera joan gabe geldituko zineten. Alferrik. Badaki ez diozula erantzunen, ezta behatuko ere. Zeurean jardun duzu, oilarrari hexurrak bereizten burua jasotzeke. Noski badakizula. Baina nolako plazer-rra, berari entzutea kontatzen. Bere buruarekin berotzen da gizarajoa.

Aluak! Baina jakinen du, jakinen du nor izan den. Nazkatua dago oraintxe herri zoro honetan. Greba eta istilua besterik ba al da gaur egun. Horrela ezin da bizi. Askatasuna behar du herri honek, baina honela jarraitzez gerotan diktadura batetik diktadura berri batera goaz. Gauza berri-rik ez orain arte, baina laster behar du ederrena, zure aita erdi negarrez ari da.

Ba enfrentamendua nahi baldin badute egin dezatela, egin ezazue esaten dizu, eman iezaiozue harrika Euskadiko kristaleria guztiari. Hori

omen da orain politika. Baina lasai uzteko langilea eta jende honratua. Ez baitago eskubiderik, eta errepikatu egin du, zuri beha, ez dago eskubiderik. Noski, berak badaki, hemen ez da inor inozoa, zer uste duzue, orain helduko da ederrena, ezin gorde izanen du luzaz, nik badakit horietako asko asaldari profesionalak direla. Ez dago gaizki, ezpainak garbitu eta sagardoari ekin diozu, presarik gabe. Beha gelditu zaizu, mutu. Masaileko bat emanen lidake gustora, baina ez du hain maila zikineraino jaitsi nahi. Kontra eginen banio sikira. Gizarajoa, garai haiek joan dira. Betirako joan dira.

Ez du goserik. Berak badaki, ez du ikusi baina, jende aunitzek baitu ikusi, esanen luke zein zokotan gainera, asaldari profesional horiek dirua ematen dietela gazteei, umeei, bortxakeriak eta txikizioak egitearren. Gaur ere. Badator ederrena, amaitu du hitzaurrea.

Barrikada alu hori errepidea mozten. Hau baldin bada ekarri behar diguzuen askatasuna preskuak gaude. Baina ez duzu burua jaso. Jardun dezagun laranjari azal arrasto xeheenak ere zuritzen. Horrekin nahikoa ez eta su eman diola

norbaitek barrikadari. Boteila horietakoren batekin seguru asko, jende artetik botako zuen, oihukatzeko ausartak baikara hemen, baina gero gauzak ezkutuan egin behar. Sua eman behar zaiola erabaki baldin badu asanbladak, hau ere niri beha esan du seguruenik, ba joan eta eman su, hantxe, bertatik bertara. Baina bai zera. Inpunitatea. Hobetzen ari da, hitz berria du hau. Erresponstabilitaterik eza.

Baina berak jakinen du koktela nork bota duen ez ezik, nortzuk izan diren auto mugitzen ibili direnak ere. Noizbait. Ezin du isilik gorde. Ederra izanen da ama ere negarrez ikustea. Zure amak ez du espero han behean, etxearen bueltan bertan, kale erdian kixkalita dagoen autoagure autotxo polita izatea. Orain aitak esan eginen dio, emakumea, aurten bakaziorik gabe. Eta amak zer ba esanen dio. Diru pixka bat osatu beharko dugu. Baina ez al ginen gelditu hirurok joanen ginela Errioxara? Eta ez du auto kixkaliarena kontatu beste erremediorik izanen. Aitaren edo esanen du amak, eta burua ezkutatuko du esku artean. Ederra izanen da. Ni lasai, kafesne hotzari haize ematen.

Esan ere eginen du berak badakiela nor diren halakoetan ibiltzen direnak, eta beste norbaitek ere badakiela etxe honetan. Baina zu lasai, eskuak katilu hotzean berotzen. Eta ez dela oheratuko arik eta izenak eduki arte. Hau ez da horrela geldituko. Badaki nondik hasi. Gizarajoa.

Ederrena ikusteko dago gizontxoa. Ez zen baxterre gaizki egon autoarena. Koktela motz gelditu zen, ez zen txakurretaraino heldu, auto azpiratzen joan zen, kasualitatea. Zeinen ederra den algaraz lehertzeko gogo hau. Ederra da idurikatzea nolako izua hartuko duten bihar goizean jaikitakoan. Zoroa bezala hasiko zaio gizontxoa bere emazteñoari hoska. Beha ezazu, sarreran genuen ezteietako argazkia txikitu du. Beha hemen, zatoz, bisiloak ebaki ditu. Ai, portzelanazko baxera! Egongelako butakek mueileak agerian! Komun zuloa zapatez betea dago! Frigorifikokoa lurrean sakabanatua! Zer da hau? Enpapelatu berria gurinez zikindua!

Baina zergatik Jauna, zergatik! esanen du zotin batean gizontxoak, eta ai ene, gure haurra zoratu egin da! kontsolatuko du emazteñoak. Eta zu, zoro eta libre, urrun egonen zara, Samuel

Bennett bezala, beste larruazal batean, hatz tipia botaila huts batekin dotoretzeko prest.

Geroztikakoa

Geroztikakoa ez zekiat, egunkariena besterik, agure alu harengatik hasi huen dena. Bulebarreko ordulariaren inguruan geundean, asko ere ez, ordubete lehenagotik baitzuten hartua, furgoietarik irtenda, udaletxetik kaiaruntz inori uzten ez ziotela. Ume batzuk zeudean espaloiares koskan jezarrita. Beti somatu uste duk baten bat, baina haiek seguruz zirela, bikote bat, oinetako sportak, bizardunak, normalegiak, ezer galdetzen bazidaten ez jauna, nesken zai gaude, edo kuadrilakoen afaria eta esperoan. Bakeosoak geundean, ez huen oihurik inondik. Irrifarrez behatzen zigutean.

Neure ondoan zegoan, aldizkari bat irakurtzen, zer egiten ote zian han, beti suertatzen duk agure zororen bat. Tabernara hurbildu hituen hiru, lasai. Jendea gomentarioak egiten hasi huen. Aurki irten hituen, garagardo kaxa bat zeramatean biren artean, bolabotalea erakusten ziguan hirugarrenak. Guk ere farre egiten genian, beldur. Furgoian sartu ziaten kaxa. Fa-

rreak. Zabaltzerakoan trabatu egin zitzairen atea
sobra ere. Ez zutela itxiko. Algarak. Orduan
agure alu hari burutik egin zitzaioan. Biltzen dik
aldizkaria galtzen sakelan eta baziak beraienga-
na zuzenean. Alamedako espaloian jezarritako
umeak zutitu egin hituen. Agureak bizkarrean
ukitu zioan bati, barka esanez bezala, eta egina-
halean hasten dela atea ixtearren. Fistuak eta al-
ferrak eta mozkorrak.

Orduantxe eman ziotean bola botatzeari,
bazterrak bete soinu. Egia esan, agurerik izan ez
balitz ere, berdin hasiko huen. Ke poteak. Saka-
banatu egin gintuztean, barne aldera. Ez zigu-
tean segitu, kale ertzetarik botzen zuten. Bi mi-
nututarako ez huen deusen hotsik somatzen. Ta-
bernak ere zabalik zeudean, sartu egin gintuz-
tean. Neska batzuk ere bahituen bertan.

Eskatu orduko sportezko oinetakodunak
atean, pistola bana eskuan. Paretari beha eta es-
kuak gora jar erazi gintuztean denok. Katxeatu
egin gintuztean mutilok, eta jiratzeko esan zigu-
tean, ongi behatzeko gero erahil ahal izateko,
halaxe esan zian batek. Karnetak eskatu zizkigu-
tean, ipinteko denak mostradorearen gainean.

Nesketako bat ez huen mugitu. Ezpain ederrak zizkian. Eta hi, zer. Eta neska ez huen mugitu. Uztan karneta besteek bezala. Ez diat karne-tik. Nola, nola, etxean ahantzi zain? Ez, erre egin diat. Mututurik gelditu hituen biak. Nola, nola, errepika ezan. Eta patxada batean esan zian, berriz esanen diat, makarra, nik banuen karneta, baina orain ez diat, erre egin diat. Harrituta zeudean, eta beldurtu ere egin hituen. Denak ostera paretari beha jartzeko agindu zigutean. Algaraka hasi hituen. Erre egin diat, makarra, eta farre egiten ziaten, makarra esaten ziotean elkarri, lehen banian eta orain ez diat, erre egin nian, neskaren aboza itxuratuz. Batek tabernaren izena galdetu zioan tabernariari, eta telefonoa eskatu zian. Kaleak ere zer izena zuen. Sei zifratako zenbakia markatu zian. Hemen Starsky eta Hutch esan zian, bidaltzeko segituan auto bat halako kalera halako tabernara, izenaren azken-tz ahoskatu gabe. Euskaldun zoro bat eraman behar dizuegu alaitzeko, esan zian, eta algara egin ziaten biek. Erre egin duela hi, zioten elkarri. Autoa heldu zelarik neskarekin irten hituen. Turismo bat huen, gorria. Mostradore gainean

zeudean karnetak. Handik aurrerakoa, egunkari-
ek ekarri dutena.

Hiru gurutze

Atzo lagunekin egona nintzen txopera batzuk hartzen eta... Ez asko, normala, ostiralero egiten dugu... Hamarrak inguru horretan tortila bat jan eta etxera abiatu ginen Txatorenean kafea hartuta... Nik autoa ikaztegi zaharraren zabaldegian neukan, eta bertaratzeko zinema berritik pasa behar da orain nahi eta nahiez, obretan ari dira goiko zurrunean... Larunbata eta iganderako pelikulen fotogramak paratuak zeuden kristaleran... Pornoak jartzen dituzte asteburuetan eta egia esan beha gelditu nintzen...

Ez zebilen inor, eguraldi hotza zen... Lehenbizi traste gogor bat nabaritu nuen gerrialdean, baina ez nuen jiratzerik izan berehala lasai egiteko eta agindutakoa zintzo egiteko esan zidaten... Ez dakit pistola zen, baliteke... Eskuineko giltzurrunean hain zuzen... Lurrera behatzeko eta kontuz burua altxa... Besoetarik heldu eta ikaztegiko aparkalekura eramán ninduten... Ez dakit zenbat, hiru bai gutxienez... Ez zuten besterik esan, ez zuten bere burua identifikatu... Ni

lurrera beha eta hogeit bat metro eginen genituen autoraino, gutxiago beharbada... Atea zabaltzen zuten artean alboan zai eduki ninduten, eta ikusi ahal izan nuen zuria zela, Renault 9 eta matrikula 68-P... Bai, seguru nago... Lurrean etzateko auspez... Autoaren matrikula ikusi ote nuen galdetu zidaten, eta nik Y bat ikusi nuela... Alua, ikusi egin duk gainera esan zuten, eta plaka aldatzen lagundu beharko niela, baina behatu gabe, eta algara egin zuten... Ez, tarte horretan guztian aboz berdinak hitz egin zuela uste dut... Ez dakit zergatik, baina nik esanen nuke ez zela euskalduna...

Bai, baliteke disimulatzeko egitea... Gero berriez batek yatá bien eta milonga esaten zuen aldiro, eta boludo, eta nik hortik ateratzen dut argentinosa zela... Ba irakurle amorratua naizelako, eta Cortazar... Egia da, baliteke hain zuzen disimulatzeko izatea, argentinosa zela pentsa nezan... Ez, seguru ez naizela literatura argentinarra irakurten duen bakarra, baina uste dut zera, heldu nindutenak ez zirela sobera irakurtzaleak...

Autoan etzan nintzen, atzekaldean, zolan, eta orduan zangoak gainean ipini zizkidaten...

Lau... Bi pertsona alegia, eta gerrian traste gogor-
raren presioa... Orduan plastikozko zorro bat
sartu zidaten burutik... Hasieran arnaska hasi
nintzen eta plastikoa itsatsi egiten zitzaidan eta
dena izerditan ito beharrean, baina gero astiro
hasi nintzen arnas hartzen... Ez nuen ezer ikus-
ten... Bidean ez zuten hitzik egin beren artean...
Niri bai, bi aldiz esan zidaten lasai egoteko, gal-
dera ziztrin batzuk egin behar zizkidatela...
Aboza berdina zen, zinema aurrean hitz egin zi-
danarena... Ez, ez dakit... Uste dut itzuli asko
eman genituela, eta bide onetik gehiena... Gero
gurdibidea edo... Maldan gora ia hasieratik eta
gero mendikoa beherantz... Hogeit bat minutu
onetik eta bost edo mendian behera...

Argiak ere itzalteko esan zion betiko abozak
eta irten egin ginen... Eskuak lotzeko esan zuen
lehengoak, eta aboz berri batek ezetz, errekan
erorten banintzen igeri egiteko aukera emanen
zidatela besteari bezala... Algaraka denak... Bai,
entzuten zen erreka hotsa nonbaitetik... Ordu-
rarte kolperik eta ez... Baina irten orduko hasi
ziren kabroia, putakumea eta halakoak esaten,
ordu extrak eragiten nizkiela eta eskarmentu bat

eman behar zidatela... Ea potrorik nuen zorroa kentzeko, ea kentzeko... Eta betiko mehatxuak...

Betikoak diot iaz detenitu nindutenean esaten zizkidatenen antzekoak entzun behar izan nituelako, esateko modu bat da, ea konpañerarik neukan, hitz hori erabili zuten, eta banan bana bortxatuko zuketela neure aurrean eta ea maritxu bat nintzen, eta berdin bortxatuko nindutela ni... Lasterka hasteko mendian behera, punteria egin nahi zutela... Era guztietako trufak... Ez dakit zenbat aboz izanen ziren, sei edo horrela, komentatu zutenagatik zai genituenak ere bazinen... Lehen esan dudan bezala, haietako bat, nik uste behintzat, arjentinaoa zen, edo agian bertan egona...

Kurpilarena egin zidaten, elkarri pasatzen ninduten kolpeka eta ostikoka, hasteko hizketan agudo, izenak emateko bizirik atera nahi baldin banuen... Horietako batean lurrera bota ninduten eta nik eskuak luzatu nituen eta otearen gainean erori nintzen... Oraindik ez ditut ziri guztiak kendu ahal izan, handituak dauzkat biak...

Nik uste dut jipoitu besterik ez zidatela egin nahi, egiten zituzten galderak kunplitzeko ema-

ten zuten... Zuloa non zegoen... Jessorako berrien izenak emateko... Inpuestoa nortzuk ordaintzen zuten herrian... Nik karraxi egiten nuen, eta farre egiten zuten... Nahi baldin banuen euskara batuan itaunduko nindutela, eskatzeko abokatu bat ere... Algara egiten zuten... Ostikoka, lurrean nintzen eta... Hiru saihets ditut hautsiak... Nik uste dut haietakoren bat edana zegela... Gauza arraroa da, oso ongi zekiten zer egunetan egona nintzen Herrera de la Manchán bisitan... Ea zenbat damutugai zeuden galdetu zidaten... Asesinoei bisitak egiteko gogoia kendu behar zidatela... Nik ez dakit nola jakin zezaketen noiz egona nintzen... Ez, azkeneko bi bidaiak ez ditut herrian antolatutako autobusean egin... Ez dut neure burua persegitua edo barrendatua somatu egunotan... Lurrean hobeki nengoen, arnasa lasaiago hartzen ahal nuen... Hurrengo batean sakonduko genuela, eta euriaren aitzakia-ekin suertea izan nuela eta altxatzeko... Orduan zorabiatu eta konortea galdu nuen... Errekan iratzarri nintzen, aurpegia uretan, zorrerik gabe... Algara egin zuten altxatzen hasi nintzenean... Orduan ileetarik helduta burua gora jasotzera

behartuz autorantz abiatu ginen maldan gora, bidera eraman baitzuten nonbait...

Autoak atzeko maleteroa irekia zuen eta bertan sartzeko esan zidaten... Kukildu egin nintzen barruan... Orduan atentatu bat egitera nindera-matela esan zidan arjentinoak, eta kapota itxi zuen... Beste ordu erdi eskas bat eginen genuen itzulika... Autoa bi aldiz gelditu zen, stopak edo semaforoak... Gero atea zabaldu zuten berriro, eta jauzi egiteko esan zidan arjentinoak... Ni behatzen ere ez nintzen ausartzen, badaezpada ere... Ez nuen inor ikusterik izan... Ezta zapatarik ere... Atera nintzelarik autoak martxa hartu zuen eta egia esan ni ez nintzen jiratu... Zinemaren aurrekaldean nengoen, bidearen erdian... Hirurak ziren...

Nik uste dut susmagarria dela nire bisiten berri hain zehatz jakitea... Ni seguru nago hala direla... Bai, seguru nago 68-P zuela matrikularen azkena eta Renault 9 normal bat zela, zuria... Gero esatea ahantzi egin zaidan puntu bat... Autoaren barruan nengoela, bueltakoan, maleteroan alegia, hiru gurutze egin nituen... Pintura kenduz... Giltzarekin... Ez noski, baina

hatzarekin nabaritzen nuen arrastoa... Maletero-
aren goiko aldean, atearen kontzen ondoan, bai,
banuen horrenbestera inoko sentsibiltatea...
Hiru gurutze bai... Barruan sartuta bakarrik ikus
litezke nik uste... Maleteroan, Renault 9 bat, 68-
P zuria, hiru gurutze txipi...

Kristal txehetua

«Joan den hileko oharraren gehigarria. Berriei erresponsabilitateak ematearena aurrera. Gazteekin lan egitea zaila. Edozein gauzari gurasokeria irizten diote. Honelako lanetan nahitaezkoa libreago jardutea. Herri bakoitzak autonomia handiagoa behar antolamendurako. Oihala lortzea, pintura eta kola ekartea eta marrazkiak diseinatzeke askatasuna eman zaie. Ongi erantzun dute, lanerako gogo handiz. Herrian gomentarioak pinturaren ederraz. Kuadrila oso bat geureganatzeko puntuan. Afaria antolatu zen beraiekin, elkarrean. Aldamenean doa afariaren gastuena. Elkarteko zaharrak batere haserre ez gazteak eta neskek barruan ikusiz.

Afaria metodo ezin hobea gazteen gurekiko hoztasuna hausteko. Giro ona. Oraingoek ez dute afalondotan kantatzen. Erabaki bateratu edo orokor bat hartu behar litzateke kanutoei buruz. Berriek eskoboi luze bat eta eskailera zahar bat ekarri. Inuzenteak eta langileak. Proselitismoa oso utzia. Hemen egindako azken saioa herriko elkarteko batzordean bi sinpatizante sartzea. Astero afaria antolatzeko asmoak. Jende berria biltzeko onena. Errifa bat antolatua daukagu. Afalgiroan tertulia politikak gai aunitzi buruz. Humanistak eta demokratik ugari. Kontraproduzentea formazio taldeak antolatzeko. Gazteek bilerak maite ez eta influentziarik onartzen ez. Guri ere ez komeni azkarregi ibiltea eta agerian jardutea. Herri alua.

Kartelada dotore gelditua. Istilurik ez. Eztabaida gazteekin portaera demokratikoei buruz. Mesedega-

ria. Hurrengo afarietan gaia sakontzekotan. Neska bat, militante ezpalekoa. Erantzun lehen bait lehen errifarena.

S.»

Hemendik aurrera ez ditut egunak santu ize-
nez noiztuko. Atzo, egungo bezpera (18-III) afa-
ria izan genuen elkartean Saturekin. Etxean
uzten ez. Haserre handia. Egun zigortuta nauka-
te etxean. Ez diet hitz eginen bi hilabetetan. El-
kartean afaldu dudan bigarren neska, esan zidan
Saturek. Guk prestatu genuen gehiena, kola,
erratza luzea, esprayak. Manuk eskailera bat
ekarri zuen. Manuk berak esan zidan ebatsitakoa
zela. Osaba igeltseroari eskatua, nik uste.

Afalondoan Xabierrek txina bat atera zuen.
Ez zen agurerik gelditzen elkartean. Saturek ez-
ajolatuarena egin zuen, baina uste dut ez zitzaio-
la gustatu. Galdera ugari egin zigun. Kristala
ekarri ote genuen ere bai. Manuk uste zuen ada-
rra joten ari zitzaigula. Satur haserretu egin zen.
Guk ez genekien. Guk ez dakigun gauza piloa
dago. Kolari kristal txehetua nahasi behar zaio.
Herri honetan kabroi ugari dago. Inoren egunka-
ria irakurten dutenak adibidez. Besteren kartelak

kentzen ahalegintzen direnak ere bai. Horientzat oso egokia da kristal txehetua langintza alu horretan ari direla hatzak urra ditzaten. Saturrek esplikatu zigun zer desberdintasuna dagoen etsai baten eta aurkalaria baten artean. Zenbait egoeratan, aurkalaria arriskutsuagoak dira etsaiak baino.

Kristala aipatu zuenean nik uste nuen azken manifaren amaieran Kakok txikitu zuen Hispano Americanoarenaz ari zela. Kako ez zen afaritara etorri. Baina Saturrek ez daki nor izan zen. Abenturakeriak zirela esan zuen. Masak ez omen daude horren alde. Orduan nik masak artaldeak direla esan nuen, eta Manuk gogor egin zidan, eta geure artean hasi ginen eztabaidaka. Saturrek oharrak hartu zituen.

Ordu bata aldera Saturrek esan zuen garaia zela, eta lana ere egin beharko genuela. Berak ordaindu zuen. Bi talde egin behar genituela esan zuen. Batzuk itsasteko eta besteak kentzeko. Guk ez genuen ulertzen. Saturrek esan zigun ordurako beste taldeetakoek paratuak izanen ziztuztela, eta kentzeko. Denok harrিতuta gelditu ginen. Xabierrek esan zuen hori ez zela demo-

kratikoa. Saturrek demokrazia zer ote zen galde-
tu zigun. Niri ere ez zitzaidan atsegin besteren
kartelak kentzen jardutea. Saturrek esan zuen
eguneroko lan politikoan lan zikin asko egin
behar dela. Manu, Inazio eta Josu joan ziren ken-
tzera. Norenak kendu behar ziren galdetu zion
Inaziok ironiaz, etsaienak ala aurkalarienak. Ego-
era konkretu honetan guri boto gehiena ken die-
zagukeen alderdiarenak, esan zion Saturrek. Eta
beren artean aztertzeke zein talde zen.

Nik suertea izan nuen eta Saturrekin eta Xa-
bierrekin joan nintzen kartelen bila. Itsasten hasi
ginenean, kendu gabeko asko ikusi genituen, eta
leku onetan. Saturrek kentzea erabaki zuen. Egia
esan denetik kendu genuen. Saturrek aipamen
asko daki buruz, seguru kartzelan egon zenean
irakurri besterik ez zuela egiten, eta eztabaide-
tan sakondu, dialektika ikasi. «Guk ezin dugu
garbi jokatu geure etsaiek fede onez jarduten ez
dutenez» (Lenin).

Astero afaldu behar omen genuke. Gauza
piloa daukagu ikasteko.

Saturren eskuak

Barruan gauez.

Lore bitxi bat. Lore bi. Aunitz lore. Ur soinua. Lu-
runa loreen ostean gora. Txilin hotsa uraren soi-
nuaren gainetik. Berriro. Dutxa isildu. Esku batek
loreak desegin. Txilin hotsa. Begiak itxiak ditu,
ilea tantaka. Mutil gazte bat. Satur da.

Arrain errainuak dirudite mutilaren oinatzek
pasiloko alfonbran. Toajan bildua zabaltzen du
atea.

Beste bi gazte ditu aitzinean. Bizarduna bata.

1. *ARROTZA*. Kaixo arratsaldeon.

2. *ARROTZA*. Satur?

SATUR. Ez, Satur ez dago. Anaia naiz.

2. *ARROTZA*. Berarekin egon nahi genuke.

SATUR. Atera egin da.

1. *ARROTZA*. Berarekin egon ginen soldaduzkan.
Bilbokoak gara.

2. *ARROTZA*. Elkarrekin afaltzekotan gelditu
ginen...

1. *ARROTZA*. Non ibiliko da?

SATUR. Ez dakit... Zoazte soziedadera, beharbada han ibiliko da...

2. *ARROTZA*. Non dago?

SATUR. Frontoiaaren atzekaldean, elizaren alboan.

1. *ARROTZA*. Ea ikusten dugun.

2. *ARROTZA*. Eskerrik asko. Agur.

SATUR. Agur bai.

Telefonoa. Esku busti batek hartu du. Zenbaki bat markatu du Saturren eskuak. Itxoin egiten du. Ilea tantaka. Ez dute erantzuten. Telefonoa zintzilikatu gabe utzi du, dilindan.

Kajoi bat zabaldu du. Miatu egiten du urduri. Ajenda bat hartu du.

Komunaren tapa jaso du. Ajenda hautsi dute Saturren eskuek urduri. Puska txipitan. Ura paxertxoaz estalia dago. Tapa jaitsi du. Urari eragin dio. Lehortu egiten da.

Igogailuaren soinua. Satur egon-gelara doa lasterrean. Argia itzali. Igogailua gelditu egin da. Igogailuaren ate soinua. Etxeko atearen zirrikitutik nabaritzen ahal da eskaileretako argia biztu dutela.

Saturrek toaja bainu-gelan bota du, bidetaren gainean. Argia itzali du. Pasiloan behera doa. Gela batean sartu da. Kristalezko ate bat zabaldu dute Saturren eskuek urduri. Balkoira atera da. Ezkutatu egin da.

Ilunabarra izarratua ageri da balkoiko ate erdi zabalduren ondoan. Etxeko ate soinua.

Esku berri batek osoan zabaldu du balkoiko atea. Gau ederra dago, izarratua. Balkoira atera da bizkarrez. Ezker eskuin behatu du. Barrura dator. Arrotz bizarduna da. Gerrian gordetzen du pistola.

Telefonia jaso du 2. arrotzak. Zintzilikatu egin du, beste eskuan pistola bat eusten duela. Bizarduna heldu da egon-gelaraino.

1. ARROTZA. Ez dago etxean. Ihes egin du.

Bestea ez da mugitu. Eskuinerantz apuntatzen du pistola.

2. ARROTZA. Ez da posible. Ikusi egingen zuten aterratzen.

1. *ARROTZA*. Balkoitik aldegin du.

2. *ARROTZA*. Jaitsi hadi behekoiei gaztigatzera.

Bizarduna atera egin da etxetik. Besteak txaketa barruan ezkutatu du pistola.

2. *ARROTZA*. Ongi, orain bakarrik gaudak.

Mutil gazte bat dago lehen apuntatzen zuen aldean, aulki batean jezarrita. Saturren antza du. Ikaratua dago. Xabier da.

2. *ARROTZA*. Esan nahi diat hemen hitz egindakoz inor ez dela enteratuko.

Ikaratua dago, baina ez du erantzun.

2. *ARROTZA*. Beha ezak. Nik bazekiat ez gaituala maite. Ez diat horrenbeste eskatzen. Beha ezak, ni profesional bat nauk. Eta ez diat nahi mukizu batek nire lana hondatzea. Eta hi izorratzeko gogorik ere ez zeukat.

Ikaratua dago, baina ez du erantzun nahi.

2. *ARROTZA*. Oso ongi, anaia defendatu nahi duk... Ulertzen diat. Baina gauza bat jakin behar duk, gauza bat jakitea nahi diat... Nork uste duk eraman gaituela hiregana?

Ikaratua dago, baina ez du erantzunen.

2. *ARROTZA*. Pentsa ezak pixka bat. Heure anaiak sartu hau istilu honetan. Hitaz baliatu duk gu despistatzeko. Eta saltsa lodi xamarrean hago orain...

Saturren anaiak burua jaso du. Arrotz bizarduna sartu da etxean.

1. *ARROTZA*. Zer, gogorretakoa al da?

2. *ARROTZA*. Hala ematen du.

1. *ARROTZA*. Tailerrean landu beharko!

2. *ARROTZA*. Ez nuke nahi, pena ematen zidak. Ez nuke nahi bere anaiagatik apuro batean ikustea...

1. *ARROTZA*. Aizak hi... zera, nola duk izena?

XABIER. Xabier.

1. *ARROTZA*. Beha Xabier, hobe diagu adiskide izanda. Ni Txikia.
2. *ARROTZA*. Niri Argala esaten zidatek.

Xabierrek ez du hartzen 1. arrotzak luzatzen dion eskua.

1. *ARROTZA*. Je, esan al diok nork esan digun soziedadera joateko?

2. *ARROTZA*. Beha ezak Xabier, ez ezakela anaia salatu kontzientziak uzten ez badik. Baina ez nazakela izorra. Esaidak izen pare bat bakarrik...

XABIER. Nik ez dakit ezer!

1. *ARROTZA*. Hik ez dakiala ezer, zertaz?

Kanpoan gauez.

Sotoko atea. Auto bat bazterrera tua aitzinean. Bi gizonezko aurrekaldean. 1. eta 2. arrotzak ageri dira atean, Xabier erdian daramatela beso-atarik helduta. Autoan sartu dute. Autoak mar-txa hartzen du.

Farola baten atzean polizia bat dago. Belau-
nikaturik, eta fusila eutsiz. Zuhaitz atzekoa zutik
dago, apuntea eginez fusilarekin. Auto atzekoak
makurturik daude, eta fusilaren kanoiak erakus-
ten dituzte. Herriko plaza poliziek hartua dago.

Zibilezko batek ozengailu bat dauka aho au-
rrean.

ZIBILEZKOA. Inguratua zaude! Hobe duzu jaitsi!

Zibilezkoak ozengailua utzi eta zeinu bat egin
dio lagun bati, honek hirugarren bati.

Erreflektoreek etxearen goi aldean argitu
dote. Erne daude fusilariak. Teilatuan ez da ezer
ageri.

OFF ZIBILEZKOA. Jaitsi zaitez!

Teilatu argituan gorputz biluzi bat zutitu da
poliki. Satur da. Argiek itsutua dago. Eskuak izta-
pean ditu.

OFF ZIBILEZKOA. Eskuak gora!

Saturrek zabaltzera egiten ditu begiak. Ezpainek zer edo zer murmuriatzen dute.

OFF ZIBILEZKOA. Eskuak gora!

Erne daude zuhaitz atzekoak, erne daude auto atzekoak, erne daude farola atzekoak. Fusil guztiek teilatura behatzen dute.

OFF ZIBILEZKOA. Eskuak gora!

Geldiro, teilatuko mutil biluziak eskuak jaso ditu buru gainetik, eta haien itzalek oraino egoztzia izan ez den aingeruaren hegalek bezala laztandu dute teilatua.

Itxialdia

Telefonoak ez zuen gau osoan atertuko, eta deskolgatzea izanen zen onena. Jendea urduri zegoen, farre ugariegitan somatzen zen, eta denak ere nazkatzen hasiak ziren brotxa latzeko pintorearen txiste errepikatuekin. Hamabost bat gazte, pintorea, taxistaren alarguntsa. Apaizgoa utzi berri hark prestatua zekarren gai zerrenda debaterako, baina pintorearen presentziak ez zuen inor lasaitzen, inork ez zuen kopetarik itxialdia uzteko esateko. Taxistaren alarguntsak urrezko kate bat erakusten zuen jertze gorriaren gainetik, senarra zuenaren eraztunarekin eta lauburu batekin. Lo zakuak zabaltzen ari ziren ia-danik. Berriro jo zuen telefonoak. Pintorea altxa egin zen, eta bigarren joaldian hartu eta putase-meak hil eginen zaituztegu banan bana esan zuen oihuka gaztelaniaz eta ez gaituzte bakean utziko eta deskolgatzea izanen da onena. Mahai gainean bertan utzi zuen. Denak adi gelditu ziren erabat isildu aurretik egin zituen soinu motei. Udaletxeko leihotik erretorea ikusten ahal zen

eliza ixten. Beha gelditu nintzen, telefono kaiola kontrolatzen. Posibilitate bat zen.

Taxistaren alarguntsak argia itzali du etorri direnean. Auto bakarra aurrea, hiru ere bai berehala. Elizaurreko telefono kaiola inguratu dute. Denek dakartzate metrailetak. Batek ez dakar uniformerik, buzo ilun bat. Kontuz ireki du telefono kaiolaren atea, minutu eskas bat egin du barruan. Irten eta autorantz joan da ezezkoa eginez buruarekin. Mikroa hartu du leihatila irekian zehar. Udaletxeko leihoko pankartari beha gelditu da beste bat, hitzak ezpainak erabiliz deletreatzen. Tabernako sare metalikoaren hotsak jira erazi egin du. Berehala heldu dira beste hiru auto, sapaietako argia dizdizka. Telefono kaiolaren berrogeiren bat metrotako radioan jarri dira, metrailetak bular aurrean gurutzatuta. Buzoduna telefono kaiolaren barruan aritu da ostera. Kable bat ekarri du aurrea etorritako autoraino. Kutxa ttipi bat atera du autotik. Bi ziren telefonotik ekarriak zituen kableak, hala ikusi zen bi muturrak hartu eta kutxan lotu zituenean. Keinu bat egin die besteei, eta autora inguratu dira batzuk. Argiei eman diete berriro, eta sirenei. Kutxaren

kerten bati eragin dio, eskuzko kafe errota bat balitz bezala.

Udaletxeko leihoak txikitu egin dira. Ederra izan da eztanda, su gorri-urdin bat, hots lehor bat. Inor ez da mugitu. Buzodunak zer edo zer jaso du elizaren ate ondoan. Itzali egin dituzte sirenak eta argi dizdizkariak, autoetan sartu dira, alde egin dute. Atari guztiak ireki dira, eta ume zaparrada bat irten da lasterka eta bultzaka. Makurka jardun dute bilketan, oiloak diruditela, telefono kaiolarik gabeko plaza osoan sakabanaturik. Kantoiko tabernak jaso egin du pertsiana eta zenbait parrokiario kaleratu da, isilean, edalontziak eskuan dituztela. Argia biztu du norbaitek eta duroz eta bost durokoz betea daukagu udaletxeko batzar gela. Primeran, esan du brotxa laztzeko pintoreak, pokerrean dakienik ba al da? Telefonora eraman genituen begiak. Kolgatua zegoen. Joka hasi da.

Jakinaren gainean

Probokatzaile bat, pistola ere aterea zuen. Beharbada denbora guti zeraman gure artean, urduri jarten zenetakoa izanen zen, oraindik heldu gabea alegia preso kontuzko bat eramateko. Utziezadazue niri, akatu eginen dut hemen bertan arratoi zikin hau! Beharbada denekin egiten zuten parodia izan zitekeen. Lagunek ez zioten kasurik egin. Ezta berak ere orain, furgoiaren leihatilatik zemaika behatzen ziolarik. Laburra izan zen bidaia.

Ez zuen inor ikusi, atzeko atetik sartuak ziren noski. Manotak kendu eta gela zabal batean sartu zuten. Bakarrik utzi zuten mahaiaren ostean zegoen neska gaztearekin, idazkaria itxuraz. Akne ugari batek itsusitzen zion aurpegia.

Egin zizkioten guztiak kontatu zituen. Neskak abiada ikusgarrian egiten zuen makinaz. Detaile zehatzak kontatu zizkionean, hitzak gordetzeke, neska gorritu egin zen eta mahaiari beha entzun zion. Berria izanen zela pentsatu zuen, ohitua

egon behar luke nazkagarrikeriak entzuten. Ukatu egin zituen akusazioak.

Itxaron hemen, juezak ikusi behar du, esan zion, eta altxa egin zen barruko gelan sartzeko. Atea irekia utzi zuen. Ikusi egin behar, baina zer, nor? Orduan konturatu zen. Hura guztia pantomima hutsa zen, juezek ez zuten denborarik inor ikusteko, inorengatik arduratzeko. Preso politikoek -Peligrosidad Social zioen plakak- ez zuten juez baten behakoa merezi. Adineko gizon trajeatu bat ikusi zuen barruko pelan idazkariak emandako paperak eskuan zituela.

Kartzelara! oihukatu zuen jueza behar zue-nak, eta neskari itzuli zizkion paperak. Neska be-rarengana heldu zen triste. Atalburuan gelditua zen jueza. Baldintzarik gabeko prisioa, esan zion neskak apalik. Ez, ez zen giltzapera zeramatela-koz, bere amorrua bestelakoa zen, sakonagoa, duintasunaren muintetik zetorkion oldar errega-rria. Behatu ere ez zion egin, zeinen erraza zen jueza izatea.

Alkandora atera zuen galtzapetik, eta go-rantz jaso zuen gerriz gorakoa erakutsiz, ikus ezazu juez jauna, nik ez diot gezurrik esan zure

idazkariari, hemen duzu ikusi nahi izan ez duzuna, irakurri ere nahi izan ez duzuna. Juezak urrezko betaurrekoak kendu zituen eskuineko eskuaz barruko gelatik aurreratu gabe. Txaketa-
ren ezkerreko manka zintzilik zuen, hutsa. Adinagatik, posiblea zen ideal baten defentsan galdutako besoa izatea. Tinbre hotsa entzun zen, eta guardiak sartu ziren.

Hitz egin zenezake pixka bat zure aita eta izebekin, esan zion furgoian etorritako sarjentokak. Ez, ez farrerik egin, esan zion aitak eskua es-tutzen ziolarik. Betikoa, ongi ezagutzen zuen. Atzerago izebak zeuden, herriko elkarteko bi emakume, seguru berak zirela fruta pasa ziotenak, alkandora garbi bat zekarkioten, eta ogitar-teko bat. Negarrez musukatu zuten. Atso haiek balio zuten... Kartzelara naramate, esan behar izan zion aitari, irrifarre hartan serenitatea era-kutsi nahiz.

Poliziek elkar kontrolatzen zuten kartzelan sartzerakoan. Paper asko pasa zioten elkarri fur-goikoek eta bertakoek. Luze itxaron behar izan zuen. Tronpeta soinu bat entzun zuten. Hortxe usteldu beharko duk, esan zion probokatzaileak.

Atea ireki zioten. Patio zabal eta luze bat zeukan aurrean, eta alboetako galerietan preso andanak barandiletan makurtuak. Baten batek txalo jo zuen. Animo oihuak egin zizkioten euskaraz. Bazekiten politikoa zela.

Gela txipi batean sartu zuten. Ijito antza zuen funtzionari bat zegoen planila bat ezin beterik. Izena eman zionean, hara, hau da orduan ospetsu hori, kontuz ibili beharko dugu ihes egin ez diezagun. Betiko teatroa. Ezin du, gizarajoak, izena idatzi. Berak egin beharko, komisaldegian deklarazioa bezala, eta farre egiteko gogoak oinazezko keinu bat eragin dio ezpain ertzean. Kolore iluneko begiak. Gorpuzkera sendoa. Neurtu ere egin zuten. Zeharrez jarteko laminaren azpian. Perretxiko jangarriak eta pozointsuak bereizteko txartel bat bailitzan, inoiz ikusi ahal izanen zuen baino sudur mota gehiago zeukan marrazturik, izena azpian zutela. Nolako sudurra jarriko dut? Euskalduna, erantzun zion txartelari behatu ere gabe, eta funtzionaria, zintzo, makurtu egin zen idaztera.

Ez zen oso zelda garbia egia esan hiru eguneko epe sanitarioa egiteko. Alkandora garbia eta

ogitartekoa ohatzearen bazterrean utzi zituen, eta etzan egin zen artaz eta poliki. Begiak itxi zituen, eta laster hasi zen kartzelako azpi lanaren soinuak ikasten. Kanta urratu bat, kolpe jakin batzuk, kirrinkak, eta aldiaren behin atepetik sartzen zen euskarazko esaldiren bat...

Ez zen batere gaizki egon egin zuena, nahiz eta komisaldegian ezer ez izenpetuak adieraz zezakeen benetakoak zirela salaketak. Baina jukutria polita izan zen. Uste ez bezala, ez ziren sobera haserretu izenpetu nahi ez zuela esan zirenean, alferrik ari zirela tekleatzen. Sotanora jaitsi zuten. Dena apalez eta paper bilduz zegoen betea, lehen karlistadaz geroztikako susmagarri guztien fitxak zeuzkaten sobra ere. Bakarrik utzi zuten papera eta boligrafoarekin. Saia zaitez txukun xamarreko zerbait egiten, eta ez ditzagula bestelako metodoak erabili behar, ni behintzat ez naiz zale. Pistola txorkatila gainean zeraman, bokilan erretzen zuen. Komisaria zirudien. Ordu erdi barru itzuliko zirela.

Aldi luze bat eman zuen zer egin ausnartzen, eta gogoetan murgildurik, ia ohartu gabetanik, idazten hasi zen, automatikoki, zirriborroka.

Lehen folioa bete zuenean idatzitakoa irakurteari ekin zion. Erdialdeko hitz haiek iratzarri zuten: jakinaren gainean. Bai, jakinaren gainean etxetik irten zen gizon baten historia zen... Eta ohartzeko, euskaraz idazten hasia zen. Ez zen asko geldituko noski ordu erdirako, eta sukar batean folioak betetzeari eman zion, jakinaren gainearen gaineko ipuin hartaz.

Irri egin zuen mendeku txipi hura gogoratzuz, baina irriak besarkada mingarrian bildu zuen, eta ezpainak estutu zituen itotzeko. Pixkanaka, ozenago ilunabarrez, kartzelak ito ezin zituen kantu urratu bat, kolpe jakin haiek, kirrinka, bertso bat, zetozkion zoko eta zirrikitu guztietarik, solidaritatearen murmurioa.

Hildakoaren aboza

Berak ez zekien bidea. Pentsatu zuen Antxonek, Irungoa izaki, ezagutuko zuela eta behar bada. Klaseari huts eginga zen hura ere, tabernan aurkitu zuen, Anitari apunteak kentzen. Bai, joana naiz frangotan. Esplikatu zion zer zen. Ez dago problemarik. Noiz esan duzu?

L. kexu zen hainbeste egun itxirik egon izan beharraz. Ez omen zuen argirik ere izan. Igande goizero bezala, mendizaleak ziren, zangoak luze eta burua egunkaripean, seirak laurden gutxitako trenak zeramatzan pasaiari bakanak. Iluna zegoen oraino. Lau aldiz irakurri behar izan diat Germinal frantsesez. Esan zion lehenago ezinezkoa izan zela, Asanblearenak jende guztia bildua zeukan. Berririk ote zegoen. Hura azken zuloa zela, materialea ere ez zen inoiz behar bezala banatzen.

Zain zeukaten Antxon geltokian. Umekeria zen, baina ezizenez aurkeztu zituen elkar. Mendiko oinetako beltz handien artean, L.ren sport zapatilek gonbidatu ezak ziruditen.

Autobusa ere mendizalez betea zen. Hirurak zihoazen isilik, L. ez oso lasai seguruenez. Argitzen hasia zuen Beran jaitsi zirenean, eta kafe bana hartu zuten irekia zegoen taberna bakarrean. Komisaldegiairen aurretik iragan behar zen nahi eta nahi ez Altzaten.

L.k oraindik ere ilea motzegia zeukala iruditzen zitzaion, triku hark salatu eginen zituela. Bidezihorrez abiatzea erabaki zuen Antxonek. Ez ote zen hobe gainontzekoak ibilten ziren bideetarik joatea, eta hori ez duk sekulan jakiten ahal. Familia oso batek aurrea hartu zien. Perretxikozaleak ere bazebiltzan. L. urduri zihoan, zin egin zuen ez zuela gosalduko gailurreraino heldu artean. Ez zen bide apita, baina bihurria. Haritzak. Pagoak. Hor bertan duk antena. Sargori zegoen, eta motxilen zamak, nahiz arina, blai egin zizkien bizkarrak. Han hemenka elur hondarrak ageri ziren, izoztuak laiotzean.

Azken puska harri lakarrezko meta bat zen. L.k lehen bait lehen ailegatu nahi zuen, harri kozkorretan lerratu eta luiziak sortzen zituen. Ah alua, gosetu egin haiz, Antxonek.

Haize hotza zebilen goien. Buila zetorkien zimenduzko etxape hartara jo zuten. Neska mutilez betea zegoen, beraiek baino gazteagoko bartzuk ere baziren. Oilasko izter bete lapikotzarra ireki zuen norbaitek. Petardoak lehertzen ziren nonahi. Txanpainaren tiroak. Algarak eta oihuak. L.k erlojuari behatzen zion betiro. Antxonek lasai egoteko esan zion, ordua zela, ordua zela bai gotsaltzeko.

Ordu bietan ez zen inor azaldu antenapera. Ez zioten begietara behatu nahi L.ri. Kontaktoak huts eginga zuen. Baina lasaitzen ahal zen, ez ziren Larhuneraingo iganak atzera berarekin itzulteko. Behin izandako zita batez oroituko zela uste zuen batengana joan zen Antxon. L. eta biak Iparraldera beha gelditu ziren. Besterik ez bada, bakarrik jaitsiko nauk. Huraxe zen kontaktoa, baina ahaztu egin omen non jarri behar zuen identifikatzeko. Hirurak inguratu zitzaizkionean eta hik zer daukak? galdetu zion gerora gogorrenetakoa izanen zen kontakto potroso hark, Antxonek esan zion bezala.

Autobusaren barrunbak lozorrotua zen, eta geldialdiak iratzarri egin zuen. Cerezo de Abajo irakurri zuen errepide ondoko txarteletan, eta kontrolen bat izanen zela pentsatu zuen, hantxe geldi erazi zien Herrera de la Manchara joan ziren azkenean. Baina jendea zutitzen eta ogitar-tekoak ateratzen hasia zen, ez zen kontrolik. Orain presoak sakabanatuak zituzten, ez zuten solidaritatezko martxarik egiten ahal, batasuna hautsi nahi zien, errenditu. Herrikoetarik, bi Almerian zeuden eta bat Puerto de Santa Marian.

Irten egin zen. Gustora hartu zuen haize freskua. Nagiak atera zituen. Denek deitoratzen zuten heriotzea, bina egunkari erosiak zirenak bazeuden. Rafaren ama izan zen egunkariekin etorri zena, eta titularra ikustean denak amil-duak ziren herriko plazatik errepiderantz, prentsa banatzaileak Carlosi paketeak uzten zizkion bazterrera. Estankoa zabaltzerako Egin erdiak salduak izanen zituen. Makatza hurbildu zitzaion, zahatoa eskainiz.

Gomentario desberdinak egiten ziren gosaldubitartean. Zenbaitek ez zuen sinesten, informa-

zio-kutsaketa zen, ajentziek zikindutako albisteak. Baina gainontzeko egunkariak ez zekarten halakorik, ez zen ajentziakoa, ezta Cerezon bertan erositako El Paísek ere, eta harrigarria zen gezurra izatez gerotan. Atentatuaren hipotesiaren aldekoek berriz isildu egin behar izan zuten Makatzaren haserrearen aurrean. Arjelinoek bazekizkiten gauzak egiten, eta horretxegatik zituzkeen eman zauritutakoen izenak ere, kutsaketa eragozteko, istripu alu bat eta kito. Baina inork ez zuen sinetsi nahi, denek nahi zioten heldu posibilitate zororen bati, bizirik irtena azken orduan, larriki zauritua baina. Denok hil behar dugu, Makatzak ordean. Istripu alu bat eta kito. «Perdió la vida».

* * *

Oraindik orain idatzia zuen artikulua etorri zitzaion burura, hildakoari egin zioten elkar hizketa erdaraz argitaratu zutelakoz hildakoaren ahoz eta gogoz bestera. Ez zuen arrazoirik ez zeukala pentsatu nahi, baina jabetzen zen kritikatzeko zuena, euskaraz ez argitaratua, bigarren maila-

ko zerbait, bazterrekoa, hurrengokoa zela, eta hala izanen zela beti euskararena: haren heriotze hurbilak erakusten zuen testamentua egin erazi bezala ziotela kazetariak, orduan bertan zutela hil. Hitz egin, hil egin.

Orain, hila zelarik, ohar bat zekarren Eginek «hitzak zeuzkan zinta ez dugularik azken orduan eskuratzerik izan»... Haren hitza galdua zen. Hila izaki, mututua zen betirako. Bazirudien hilik eskuratua behar zukeela euskaraz izateko eskubi-dea, baina galdua zen haren hitza, eta orain osatu egin behar zitzaion esana: «...azaroaren 26ko Eginen erdaraz argitaratu genuen testoa euskaratu beharrean suertatu gara.» Arrazoia zuen Makatzak, ahal dena egiten da noski, baina itzulpen traidoreena. Zeinen bidaia luzeak egin behar dituen hildakoak!

Egia zen zabarkeria hauek ez zirela konponduko kazetariak madarikatuz, sakonagokoa zela gaitza, baina isildu egin zen, bazterreko problemak kale erdira irten zitezten baino lehen konpon ahal zitzaten desiratuz. Bazterreko problemek ez dute kale osoa hartu behar. Eta isildu egin zen, betikoek dena kritika ez zezaten apurretik.

Bazekien fakultatean lankide arrazionalen irrifarre maltzurrei ironiaz, defentsan, erantzun beharko ziela, eta entzun beharko zuela manipulazio linguistikoaz, eta hildakoaren grabaketa galdua zela euskaraz ez zegoelako... Hain pizkorrak! Irteteko ziren sartu kartzelan! Eta mada-rikatu egin zuen bere burua, zenbaitetan horren desarmatua utz zezaten onartzen zuelako, kale osoko problemen lehentasunaz.

«Perdió la vida», kazetari petralak! Hildako hark sekulan galdu ez zuena, hain zuzen.

* * *

Fitxa zuten guztiak bildu eta prestatzeko agindu zieten, urrun xamar zeudela destinatua. Gauean, tropa txipi hura komenzitzeko ahaleginak alferretan egin ondoren, Bilboko hiruk eta L.k desertatu egin zuten. Ez zuen atsegin besteren banderapean soldadutza egin beharra, baina haren izenean inor akatzea... Gainera, seguru zegoen azkenean ez zutela tirako berea ez zen lurraldea martxa berdez hartzen ari ziren marrokitarren aurka, eta bai saharatarrei. Eta erorketa

alu haiek herrian... Guardia zibilak bigarrenez joan zitzaizkionerako etxera, Iparraldean zegoen.

Hilabete barru hots egin zion, eta Antxonekin joan zen bisitatzera. Lana bilatua zioten inprimategi batean. Pozik zegoen, frantses idatzia hobetu ahal izanen zuen, eta euskaldunak zituen bilankide. Gero, hilabeteren buruan, «fite», «finitu», «futituz» eta bestez hostotuko zen L.ren mintzoa.

Egun oso bat elkarrekin emanak ziren 76ko amnistiakoan. Ez zuen garbi ikusten itzultea, soldadutza burutu behar izanen zuen, eta gainera, berak, erakundeei ikara zien L. akatrak, Zola eta Maupassant-en zaleak, nik Komandantearen hitza, ni haren arrastoan, eta itzuli gabetanik geldituko zela bertan. Akritikoa ari zela bihurtzen, Erakundea eta ez pertsonak. Bai, baina pertsonak osatzen erakundea. Ordea pertsona guztiak dira aldagarriak, ez dago pertsona ezinbestekorik. Eta begietara behatu zion L.k, ez, epe luzera ez.

Bakandu egin ziren bisitak. Seaskan hartu zuten irakasle, Baigorriko batekin ezkondu zen,

haur bat izan zuten laster. Bizimodua bertan antolatua zuen. Madrileko egunkari batek polizia espagnolak «ehun bilatuenen» artean aipatuko zuen, soldadutzako argazki batekin.

Urtebete azkenekoz ikusia zuela, besoa eta burua lotuak, GALen atentatu itsu baten ondorio arina. Lasai ageri zen, eta oraindik ere ez zuen ulertzen ahal hoztasun hura, etxetik ikastolara, ikastolatik erosketak egitera, bizimodua egin behar dugu, behintzat estatu bion basakeria frogatzeko balio du. Erakunde-Probidentziaz eta Komandante-Mesias-ez jardun zuten. Egun osoa eman zuten elkarrekin, itzuli berria zeukan *Boule de suif*-en orrazketa egiten oraingoan.

* * *

Hona ere tenoreko heldu gaituk, L. Heu haiz orain berantetsia. Abokatua ezezkorra da ofizioz, baina ez daki libre utziko hauten ala Carabanchelera eramanez, loteria da hau, entregatuekiko politika guztiz aldakorra omen, arrazoia huen, azterketa politikoak ez dik deusetarako balio intuizioaren artea ez badaukak, behintzat ez duk

iada soldadutza bukatu beharko, eta bestea amnistiaturik daukagu, baina akusazioak azaldu dituz betiko prentsan, hala ere abokatuak zioke berarkada bat ematen uzten dutela, horretarako etorri gaituz herritik, autobus osoa L., astelehen gozorian, behar bada ez haiz berarkada gogoz izanen baina lau egun hauen eskuetan egonik, eta Audiencia Nacionaleko eskailerak igaiten ditudalarik nire artean ez zekiat nola esplikatuko diadan, ez, ez iezadaala esan artikulua ona zela, ez zekiat nola esplikatuko diadan, akurata baten obedientzia lortu zuen Komandantearen aboza itzali egin dela, argitasuna, eta ez hitza, zen aboz hura.

Hirugarren bazterra

Don Alejo izan zen Euskal Herria bisitatu zuen azken erromantikoa. Eta Flaubert eta Hugo bera ez bezala, euskaldunek idatzia irakurteko beta hartuko zuen: «Donibane Lohitzune, non etxe guztiak *baitak* eta *eneak* diren...» dio 1934an Carteles aldizkarirako egindako kronika batean. Alabaina, aurrerago ikusiko dugunez, mende honen hogeikadan behar zen egina bidaia.

Nik uste hasiera honek ez dut esanen txunditu, baina ustekabeen harrapa dezake Urrutia s.j. Don Alejo erromantikoa? Eta orduan errealitate liluragarriaz jarduteko aukera izanen dut, eta erromantikotasunaren gaurkotasunaz. (Prestatu). Flaubert? Bai, Euskal Herria bisitatutakoa, eta euskaldunez idatzia. Aipamena eramanen dut, badaezpada ere. Gero, irrifartsu, etxeen ize-nak irakurtea ez dela euskaldunek idatzia irakurtea aurpegiaratu dit ironikoki, eta ni lasai, metafora bat dela, alegoria bat, alegia Don Alejo euskal gauzei eta gizakiei erne erreparatu ziela, eta aurreiritzirik gabe... eta presentzia bat eman

ziela *El Siglo de las Luces*-en, Esteban Iparralde-
ra datorrenean. (*Oh! Euzkadi*-n itzulitako pasar-
tea -2. alea, Ekaina 1980- izenperik gabe, baina
Sarasolarena ziurrenez).

Don Alejok ez du espreski Bidasoa aipatzen,
baina aurrerago ikusiko denez, iritzi interesga-
rriak ematen ditu zubiei buruz. Zeren, lan honen
azpitulua Ubiz eta Zubiz izan baitzitekeen...

*«Bidasoa: Espainiako probintzia baskon-
gadetako ibai txipia, famatua haren bazte-
rretan frantsesek, Soult buru zutela, eta in-
geles, espainol eta portugesez, Wellington
buru zutela, eman zituzten batailengatik».*

Bidasoari buruzko artikulu hau *New American
Cyclopedia*-koa da (3. alea, 1858) eta egileak
Marx-Engels dira.

Aspaldisko du beraz lekua egina diotela Bida-
soari enziklopediek, Bidasoa hitzari bederenik.
Ez noski Nilo edo Amazonas baten gisako ur-han-
dia delakoz, ez eta haren bazterretan leudekeen
tribuak aipatzearren, baina bai Bidasoaren baz-
terrez, inguruez eta biztanleez gain dauden bi

mamutzarrek, Frantzia Buruhotzek eta Espainia Odolberok, elkarren arteko zedarriztat zutelako ezarri. Eta euskaldunok aipu garenean, aurkintzaren osagarri hutsa bezala gara munduratuak:

«Gainera, bertako kontrabandistek Bidasoa erreka hiru ubi erakutsi zioten, denak iragangarriak itsasbeheran eta frantsesek ez ezagutuak, zeinek guztiz salburik uste baitzuten beste aldean» (Marx-Engels, aip. lan.).

Bidasoa esan, eta ez gintuzten euskaldunok esaten. Bidasoa ur hutsezko ibaia zen, bazterrik gabeko kanalea. Bidasoak ez zeukan Bidasoalderik.

Ongi, ongi, esanen du honetan Urrutia s.j.k, denok maite dugu poesia, baina *ubi* ala *ibi?*, galdetuko dit irrifarrez. Eta seguru Armendarizek hitza hartu eta u/i alternantziak eta ü-aren teoriak hasten dela, eta Urrutia s.j.k beti baitu esaldi egokia ezpainenetan, entzun beharko ditugu Oihenarte eta Duvoisin eta... Zurikerian segiko du, eta *«frantsesek ez ezagutuak»* baino ez ote

den jatorrago «*frantsesen ez ezagunak*», barkamena eskatuz bezala bere zorrotasunagatik...

Euskal poetek maiz hartu ohi dute Bidasoa kantagai:

*«Kontrabanda ederrik badoa gaineratik
ez dire urrats oro izokinenegatik»*

adibidez, edo J.M. Hiribarrenen beraren beste parte hau:

*«Eman gabe auzoek elkarri harrika
bertzelako behar da euskaldun fereka.
Egin dezake orok lainoki arrantza
guti balio luke eginik azantza:
Paris eta Madrilek egorriren jaunak,
klikatzeko astiroz gizendu arrainak».*

Paris eta Madril, ezin elkar hil. (Urrutia s.j.ren irri maltzurra ripioa entzundakoan). Bidasoaren buruan eginen bakea, ibaiaren bazterrak elkarren harriatzeko suturik, estatuen eskubideen ohorerako...

*«Itsaso aldera beti
zabal zabalik begiak.
Oh Jaun maitea, zer urrun dauden
Euskal Herriko mendiak!»*

Iparragirreraren bertsoak onena nire iritzirako. Saudadearen adierazgarri garbia. Eta Urrutia s.j.ri berriro gain hartzeko, euskal saudadearen azterketa bat egin litekeela botako dut, euskal kantak eta Cancioneiroa alderatuz, ezkerreko bekaina jaso besterik eginen ez badu ere.

Mendia haren ikusmina. Mendia ikusi arteko herrimina berea. Ez da harrigarria beraz Bidasoaren gaindi begiak luzatuz *«Hara nun diran mendi maiteak!»* esatea etxera heldutakoan. Eta itsas bazterrean bezala dago Bidasoaren bazterrean, zabal zabalik begiak:

*«Hara España, lur hoberikan
ez du Europa guztiak!»*

Ikerle eta olerkizale zenbaiten arabera, hala-
xe dateke berezko bersioa. Aunitzek du, aldiz,
bestelako usterik. Kerexeta'tar Jaime euskaltzai-

nak, Luis de Castresanak eginiko Iparragirrerren biografiaren euskaratzaileak, honela diosku:

«Beste batzuek “Ara España” jarten dabe emen. Zelan esan ete-eban Iparragirre’k? “Ara Euskalerra”, urrean. Izan be, Euskalerrari eutsan biotz-miñagaitik etorri zan Ameriketatik, eta eusko-mendien aurrean egoan orain Endaia’n.»

Egun eta hemen, ordea, «Hara Euskadi» kantatzen da. Baina Iparragirre ez al zegoen, berak aitortua, Hendaian? Ez al zegoen iadanik, lurrez, Euskal Herrian?

Bai Urrutia s.j. jauna, badakit ezin dela gaurko kontzientzia (nazionala) ehun urte atzerago zeharrraldu orduko jokaerak aztertzeko, baina nire argudio honek, hain zuzen, autorearen lana «hobetzen» saiatzen direnenak deuseztatzeko da, zeren nire aburuz Iparragirrek «España» esan zuen. Hendaian zegoen, mugan, eta jakin behar zuen, karlistetan ibilia izaki, Bidasoaz haraindian errefuxiatzea zer zen... Bazekien, zer duda egin, Madrilen atzaparraren ihesginari Pari-

sen meneko eremua Bidasoan zitzaiola hasten. Bazuen muga-kontzientzia, bazuen estatuen berri. Horrengatik kantatu zuen:

*«Gure anaiak dira espagnolak
gure anaiak frantsesak
adiskideak italianoak
aleman eta inglesak.»*

Iparraldea España ez baldin bada, eta Hegoaldea Frantzia ez, nola uler liteke espagnolak eta frantsesak anaiak izatea? Eta hona iritsitakoan irakurteari utzi eta klase osoari behatuko diot, eta buruz jarraituko dut: Euskaldunok «gu» garelakoz Bidasoaren bi bazterretan, frantsesak eta espainolak orobat auzo ditugulakoz. Auzo, ez etxeko. Baina zuek eta gu, alegia Hendaia eta Hondarribia (Behobia/Behobi), ez gara auzo, elkarren auzoan bizi garen herri bat baizik. Lasai, lasai Urrutia s.j., berehala nator Iparragirrerengana.

Esandakoa kontuan harturik, «Hara España» ez da kontradikzio bat Iparragirrerren obran. Guretzat da kontradikzioa, «Zazpiak Bat» sortuz

geroztikakoontzat. Iparragirrek ez zuen «Euskadi» ezagutzen «España» ordezkatzeko, eta orduko «Euskal Herria» konnotazio politikorik gabeko izena zen. (Gehiago sakondu). Guk ordea badugu izen egoki bat, eta horrengatik saiatzen gara «España» ordezkatzeko... Baina nago ez ote genukeen hobe «Hendaia» kendu («*Hendaian nago zoraturikan...*») eta «Baiona» esan, «Hara Euskadi» kontradikziorik gabe kantatzekotan behintzat. Erdiek ez didate ironia ulertuko, baina ez naiz hasiko esplikaziotan, gerotik gerora luzamendutan haria ez dezagun nahas, errebelatzen eta huts egin, Urrutia s.j.k esanen lukeen antzera klasikoak ahotik ezin kenduz.

Bidasoaren bazterretan promenatuko zen, handik urteetara, gure Unamuno ere, Primo de Riverak ezarri deserrian. Benetako deserria hura Unamunorentzat, hegoalderako zituelarik soa eta bihotza:

*Un puente de campanadas
tiendas sobre los alfaques
del Bidasoa...* (Fuenterrabía III)

Zubi bat behar zuen Unamunok Bidasoaz gaindikoa, Santiago zubi berezia, Via Lactearen Santiago Bidea, Espainiaren bihotzerainokoa:

*Tu voz, campana de Fuenterrabía,
expira en la bahía,
mientras que el sol expira en la monta-
ña
y mi paz en España.*

Ez dira bat eta bera, ez, Iparragirreren «España» eta Unamunorena:

*Fuenterrabía es un cromo
sobre la tapa de España
que se cierra oliendo a rancio,
caja de pasas de Málaga.*

Unamunoren espainoltasunak ez du beste komentariarik behar noski, baina ez dator gaizki aipa diezazuedan Don Alejori esandako esaldi historikoa, Bidasoa bazterrean:

-Ya ve usted... ¡Estoy de ujier de España!...

Baina ordurako Bidasoak ez zuen ur hutsezko ibaia izan nahi, bazterrik gabeko kanalea. Bidasoak bazuen Bidasoaldea, aberriaren Bidasoak urpetuak zituen ezker-eskuineko lurrak, euskaldunok eta eskualdunok haurride bataiatuak (Murmurio bat betiko aulkietan):

*Gure gogoak berextekotan
eman dute Bidasoa,
ai, zabalduk ere nolazpait
gur'artean itsasoa.
Batzuer eta bertze haurrider
ebats zezaketen soa
baina bihotza ginuen orok
beiratuko bat osoa!*

Marx eta Engelsen ibai txipia itsasoa zitzai-
gun bilakatu, bi bazterrek ezin ikusteraino zabal-
duko zen Bidasoa, haruntzakook eta honuntza-
kook haurride ginela ohar ez gintezen, elkarri be-
gitartea eta besartea ez baina, bizkarra genie-
zaion eskain. Eta argienak, haurridetan ausarte-
nak, «bihotzez» izan zitezen bat! Iparragirre

Ameriketarik bezala. Izarrei beha Hendaiako eta Hondarribiako itsas bazterrean Unamuno txi-piak. Nolako ozeanoa bitarteko!

*Zazpi ahizparen gai den oihala
ebakirikan erditik
alde batera hiru soineko
utzirikan lau bestetik.
Guraizeakin bereizi arren
bakoitza bere aldetik
ezagutzen da jantzi dirala
zazpiak oihal batekin.*

Bai Urrutia s.j. jauna, hain maitea duzun Ori-xeren «Euskaldunak» ere aipatu behar dizut, Lete trontzalaria Lete poeta balitz bezala mintzo denean:

*Oihaltzat hartu zagun Euskera
guraizetzat Bidasoa
-ibai koxkor bat besterik ez da,
hutsa... balitz itsasoa.
Elkarren hurbil daude zazpiak
muga deitzen da Pausoa.*

*Zergatik izan ez behar dugu
famili bakar osoa?*

Oxobiren itsasoa gaitzerdi litzateke Orixerentzat: ebakiko genukeen bideren bat bazterrik bazter, Bidasoa itsaso besterik ez balitz! Ondikotz, Bidasoa ez da bidasoatasunez zatitzaile eta urrunarazlea. Euskara den oihalean -uler genezake Euskadi den oihalean- Bidasoak guraize, artazi, aitzurrarena du zeregina. Bidasoa guraizez da urrungarria, ebakitzaila. Eta ebakitzaila hi hatzek darabiltelakoz. Esku desberdinetako hatz bik, Parisetik eta Madriletik honainoko luzeak: Estadoak, Fronterak, Erdarak... (Aski borobila).

Horrengatik da iragangaitza Bidasoa, berez ibai koxkor bat izan arren itsaso batek ahal dezakeena baino urrunagotzen baikaitu alde batekoak zein bestekoak. Elkarren hain hurbil egonik, bata Ipar-aldea dugu eta bestea Hego-aldea. Ez dago elkarrengana gaitzakeen Erdi-alderik. Bidasoa guraizeak eten egiten Bidasoa gaineko zubia...

Eta hemen ez dago gaizki Don Alejo berriro ekartea arestian aipatu kroniketan euskal herriko zubiez ohar interesgarri batzuk egiten ditu eta. Itzulpena neurea da.

«Zubi arbitrarioak, estuegiak gurdi bati bide emateko, Pirinioetako milaka erreken gainean luzatuak modurik harrigarriena. Hauetako zubi batzuren gainetik, uztai kakodunekoak, pertsona bakarra iragan ahal izanen da aurrez... Honek bi bazterretako biztanleen arteko liskar zaharrak mantentzen lagundu behar du, jakina baita herri bat ibai edo erreka batek bitan zatitua denean eskuineko bazterreko auzoek segurtatu egiten dutela besteak anker adardun batzuk direla, ezkerreko auzoek aldiz besteak deabrua gonapean dutela aldarrikatzen duten artean...»

Zubia utzi eta ubia hartu beharra daukagu beraz. Eta hemen, Armendariz ergela, eta Urrutia s.j. dialektologo jakintsua, garbi ikusten da (entzun: *zubi-ubi*) zergatik hautatu dudan ubi eta

ez ibi... Hitzak elkarren ondoan jarteko eginak daudelakoz. Harri perfektu batek ez du etxea osatzen, baina bai harri trakets aunitzek. Urrutia s.j.k baiezko zeinuak eginen ditu buruarekin, behakoa hatzazal manikuratuetarik jasotzeke... (Adibidea hobetu).

Baina itzul gaitezen Orixeren azken bertsoa, eta «*Muga deitzen da Pausoa*» irakurririk, guk, poeta zaharren irakurle berriok, Marx-Engelsen hura apur bat moldatuz, muga honek bere kolkoan daramala bere buruaren apurtzailea, ulertzen dugu: pausoa. Esan nahi baita besoak gurutze ez egotea, mugitzea, arduratzea. Pausoa ez da pausua. Aitzitik, pauso ematea. Eta honetan Armen-darizi behatuko diot. Ahalen ergela. Eta pauso emate horretan aurkitu dugu berriro oihal bera- ren Iparra eta Hegoa garela, denok garela Bida-soaldea:

*Arbola baten zainetatikan
sortzen diran landareak
bezela fierak, Bidasoaren
bi aldetako jendeak.*

Egun, famatzen hasia dago Bidasoa ez ezik Bidasoaldea ere, eta ez Wellington edo Soult-en batengatik, baizik guti edo gehiago denok egin garelako poeta eta kontrabandista, eta ubi berri bat dugulako aurkitu zubi etenaren azpitik. Eta ez gara ingelesentzat ari. Ez dira urrats oro izokinengatik.

Bidasoaren bazterrik bazter doan Bidasoaren «hirugarren bazterra» (Guimarães Rosa-ren ipuin bat) ari gara osatzen.

Isilune bat eginen da apunteak biltzen ditudan bitartean, altxako da Urrutia s.j. eta ni ere altxa eginen naiz biok geure leku naturalak har ditzagun berriro, goian bera eta Marijosereren ondoan ni, eta eztultxo pare bat egin eta abozik ez-tiena aterako du zuri: oso interesgarriak poeta zaharren irakurketa berriok, nik uste dut gure lagunari entzunik egia dela guti edo gehiago kontrabandista eta poeta egin garela denok ere une batez, baina nik esango nuke, gure asignaturari bagagozkio...

Eta bere azken argudioa bota beharko du. Eta nik ere lasai eta maltzur, esaldi historiko bat botzen dudalako ziurtasunez, argudiorik ederre-

naz, suntsituko ditut Urrutia s.j. eta ez s.j. guz-
tiok: gure poesia ezin da poetika horien legeetan
aztertu, eta hau Bidasoak hiru bazter dituela be-
zain egia da...

Petite bohême

Poetak beste gargardo bat eskatu zuen ahal duanean esanez. Musupaper bat hartu zuen delikateziaz, bizarretan itsatsitako apar tantak kendu zituen eta atun bokadiloa ezkerreko hatz puntekin estutuz hortzak luzatu zizkion. Ongi berdinduak hortzak. Txinatu egin zituen begiak. Eskabetxe puta hau, esan zuen, pasta hura ahoztzen zuen artean musupapera lurrera jaurtikiz, haserre.

Jendez betea zegoen taberna. Makinan galtza motzetako neska bat ari zen jolasten, algara egiten zuen extralurreko bat akabatzen zuen bakoitzean. Tarteka arlote zalkor batek jotako xilofonoaren notak somatzen ziren. Nazioartekoa. Poetak ukabila jaso zuen. Langile tristea, abestu zuen, Aresti putamierda gaineratuz. Kamarero batek pertsiana jaitsi zuen, banderilak biltzen hasi zen. Zizka-mizkak, irakurten ahal zen zerrrendaren buru pareteko pizarran. Zotzez, papezez eta jaki hondakinez betetako zerrautsa hasi ziren erratzatzen. Zalkorra taldez talde zebilen

gatzontzi huts bat erakusten, poetak hogei duroko bat bota zion. Zerrautsa arrasto bat gelditu zitzaion ezkerreko zapatan. Atzean neska bat zuen, ni Ohion jaio nintzen eta orain euskara ikasten ari naiz Bedaioko baserri batean, esan zion inguruan zituen eulimandoei. Poetak burua itzuli zuen. Ipurdi eroria, pentsatu zuen. Gizonezkoek, arreta handiz behatzen zioten neskari. Hello, is that Rosemary? This is Walter, esan zion poetak. Hello Walter, how are you? erantzun zion. Yes, please, esan zuen poetak. Zu Ohion egon zara? galdetu zion amerikanak, irrifarre egitean poetarenak baino hortz handiagoak erakutsiz. Poetak bigarren garagardoari heldu zion bokadilo erdia zola garbitu berrian meziprezioz boteaz. Atuna papurtu egin zen baldosa gorrian. Hankarekin baztertu zuen. Musupaper bat hartu eta zapatako koipe arrastoa gabitu zuen makurtzeke hanka altxatuz. Nik osaba bat dut Ameriketan, gomentatu zuen eulimandoetako batek. Ahalen astoa, esan zion poetak, astoa ez besterena, oihukatu zuen. Tabernako guztiak jiratu ziren. Goaz taberna batera? esan zuen poetarekin zeuden nesketako batek, soineko urdindu-

nak. Begi ttipiegiak, pentsatu zuen poetak. Neska gaixoak, maita nazazue asper nadin baino lehen, eta kriskitina jo zuen ezkerreko eskuarekin, begia kinatuz. Maitatu? pentsatuko zuen lilitaturik soineko urdindunak. Aspertu? esan zuen bekozko beltz soineko urdindunaren lagunak. Galtza berde estuak.

Poetak amerikanarena ere ordaindu zuen, sototik atera zen neska biekin. Beso banatarik helitzen zioten. Poetak jaka esportaren sakeletan ziztuen eskuak. Ba nik aspaldi utzi nion kirol horri, esan zuen galtza berde estudunak. Ni etsita nago, esan zuen soineko urdindunak. Hiriaren parte zaharrea barrena ibili ziren noraezean, gazte jendea erruz. Kristalera batean itsatsitako auzo elkartearen agiri bat irakurri zuten. Jauntxo eta diktadore esaten zieten alkateari eta bere alderdi PNV-ri. Duro bat eskatu zien mozkor batek. Ikaztegia izandako tabernan sartu ziren. Oihal ikaragarri batzuk zeuden eskegiak paretetan. Egilea ere bertan zegoen, zapeladun, traje zahardun. Poeta oihal ttipi batera hurbildu zen, begiak txinatu zituen. Betaurrekoak atera zituen jakaren barne sakelatik eta ardura handiz eraman

zitzen begietara, belarrietan jantzi gabe. Margolaria hurreratu egin zitzaion baina poeta barra aldera etorri zen, nesken zer nahi duzuari arreta emanik. Txanpaina, suiziden edaria, esan zuen. Amerikana ere han zegoen, mahai batean, eulimando haietako birekin. Jertzean nuklearrik ez eskerrik asko bat zuen. Poetak tabako gorria eskatu zuen. Txanpainari erreparatu zion, gomentario bat egin zuen koloreari buruz. Ze beltza zauden ezta, esan zion galtza berde estudunak. Orain ilea moztuta hobeto dago, esan zuen soineko urdindunak, galtza berde estudunari ukondoko bat joz. Margolaria txahala botzen ari zen eskuetan zuen zapelan. Arte hutsa, esan zuen poetak.

Nahi baduzue nik Armagnac botila batzuk dauzkat etxean, esan zuen bigarren aldiz galtza berde estudunak poetak seigarren ezaguna topatzen zuen mementoan bertan. Neskek aurrera segi zuten kalearen izkineraino. Poeta folio batzuk tolestu eta jaka esportaren barne sakelan gordeaz etorri zen. Bueno zer, gauza alaiagoren bat, esan zien poetak itzulitakoan. Hartzagun autoa, esan zuen nesketako batek. Lurrazpiko

parkigean sartu ziren, ordu erdi bat egin zuten autoaren bila. Hemen behar du ba, gomentatzen zuten setan galtza berde estudunak. Hortxe dago, esan zuten azkenik, gauza bat ikusi behar duzue orain, eta auto zuri baten maletategia zabaldurik oihal bat atera zuten. Atzo bertan egina, esan zuten, argitara zeraman bitartean. Usurbilen dago, esplikatu zuten, zoragarria da baserria, erdi erorian dago baina. Autoan sartu ziren, poeta eta soineko urdinduna atzean. Hiriaren auzo bazter baterantz abiatu ziren. Ez uste erakusteagatik daramadala eh, esan zuten gidariak. Atzekoek ez zioten deus erantzun. Lehortzeagatik da. Eta geroxeago poetari, nirea ikusteko ez duzu betaurrekorik jantzi eh?

Boîtearen aurrean auto errenkada luzea zegoen, bozina joka. Coupé irekigarri batekoak hiriko futbol taldeko batekin ari ziren hizketan, bidea hautsiz. Gidariak ongi ezagutzen zituen futbolariak. Leihatila jaitsi zuten eta suplente, ordezkari, artaburu, hankaputa! oihukatu zion. Futbolariak burua jiratu zuten. Bertaratu egin zen lasai, irrifartsu. Urrezko kate bat zuten lepoan. Ezin al da lagun batekin hitz egin? esan zion oso

aboz ez-tian. Gidariak artaziaren keinua egin zion hatzekin eta aurrera jo zuen kurpilei irrintzi eraginik.

Poeta ezaguna zen eta doan sartu ziren. Dantzalekua mukuru betea zegoen. Soineko urdindunak suiziden edaria eskatu zuen. Erdeinuzko muturra jarri zion ekarri zioten markari. Nahi baduzue nik etxean Armagnac daukat esan behar-zuen galtza berde estudunak. Argi gorri honekin guapoago zaude esan zuen soineko urdindunak. Ni guapoa izan nintzen bota zuen poetak, faut-il qui m'en souvienn... Txanpaina ireki zuen, gainez egin zuen aparrak. Dantza eginen nuke, esan zuen soineko urdindunak. Poetak barra gainean utzi zuen kopa, makurtu egin zen besoak neskaren atzetik luzatuz eta airean jaso zuen. Neskak karraxi zoro bat egin zuen eta txanpaina ixuri egin zen eskuan zeukan kopatik. Poetak dantzalekura eraman zuen besoetan. Nik ez dut hauxe huts egin behar horratikan esan zuen galtza berde estudunak, eta haien atzetik abiatu zen. Denbora labur itzuli ziren hirurak. Desilusiozko bizkar-harrotze bat egin zuen galtza berde estudunak. Jende gehiegi, esan zuen

soineko urdindunak. Nirea tangoa da, jakin erazi
zuen poetak kopak berriro beteaz. Trikitixa bat jo
zuen gramolak. Argiak itzali zituzten. Jendea irte-
ten hasi zen. Kaleratu egin ziren. Gaua laburre-
gia da poeta batentzat, esan zuen poetak txan-
paina botila erdi hutsa jasoz. Nik ez nahi gaua
bihurtzerik egun, oi behera-behar hau zein den
itun! errezitatu zuen poetak, Lizardi putamierda.
Hondartza ondoko paseoan zihoazen. Ez futbola-
ria eta ez ezer, ostikoak ematen besterik ez daki
horrek, esan zuen galtza berde estudunak.
Neska ttipi batek aurreratu zituen, agur egin
zuen. Poetak betaurrekoak atera zituen jaka es-
portaren barne sakelatik, jantzi zituen, agur,
agur, esan zuen. Ai, ez dakizu ze lasaitua ema-
ten didazun, esan zuen soineko urdindunak. Po-
etak bekainak goratu zituen. Orain badakit ka-
lean agurtzen ez nauzunean ikusten ez nauzula-
ko dela, esplikatu zuen neskak, etsita nengoen
ia. Niri begi miopeak izugarri gustatzen zaizkit,
esan zuen galtza berde estudunak. Poetak hon-
dartzarako eskailerak jaitsi zituen. Jakaren barne
sakelatik atereak behar zituen sei ezagun haiek
emandako folioak, ahapetik irakurri eta hortzak

estuturik putamierda! esanez ezkerrean zerama-
tzan paperak eskuinarekin hartu, eta pilota egi-
nik bota egiten baitzuten harrika. Atzetik zihoaz-
kion neskak. Poetak arreta handiz erantzi zituen
zapatak, eskuan hartu zituen, uretara abiatu
zen. Amerikana Amerikan osaba bat omen zue-
narekin azaldu zen, lozaku bat bizkarrean zintzi-
lik. Poeta bazihoan itsasoan aurrera, belauneta-
raino hartzen zuen mareak. Neskak aztoratu
egin ziren. Poeta gerriraino hartu zuen itsasoak.
Epela egon behar du, gomentatu zuen urduri
galtza berde estudunak. Bainatu egin behar
dugu, agindu zuen soineko urdindunak. Bainatu
gauetz?, nik ez dut bainu jantzirik, eta gainera,
nola lehortuko gara gero?, galtza berde estudu-
nak. Poeta leporaino hartzen zuen itsasoak. Nes-
kak izutu egin ziren. Itsasoa laino dago, Baiona-
ko barraraino... Euskadi putamierda! ari zen
ahoskiz. Nik uste dut detenitu egin gaitzaketela,
esan zuen galtza berde estudunak. Oh, ni orain
bainatuko banintz bizian egin dudan zorakeriarik
handiena eginen nuke, erantzun zion lagunak.
Izarpeko bainua derrihorrezkoa da amodioa egin
baino lehen, oihukatu zuen poetak itsasotik.

Aulki bana zabaldu zuten eta gainean ipini zituzten galtzak, gona, atorrak. Izter meharrak, pentsatuko zukeen poetak. Lasterka abiatu ziren uretara, eslip eta bularretakoak gauean zuri. Oihu egin zuten, eta murgilean sartu ziren olatupean. Hiru buru tipi baino ez ziren ageri berehala. Amerikana etzanda zegoen aulki tolestu mul-tzo baten ondoan amerikanoaren ilobarekin. Gazte talde bat zegoen haruntzago, su baten inguruan. Kitarra jotzen zuen baten batek. Hondartza osoa zakur lasterkariek kurritzen zuten alde-rik alde. Ileak buruari atxikiak lehorreratu ziren neskak, blai. Poeta motelago zetorren, jantziak larru busti eginik, itsaso jario. Txanpaina hustu digu, esan zuen nesketako batek orru batean. Suizida nazkagarria! esan zuen beste neskaren ahotsak. Uretara! esan zuen poetak. Uretara! errepikatu zuten aho batez hirurek, eta sei atzapar bustik heldu ninduten. Putamierda! esan ahal izan nuen, eta itsasotik, eder eta ausart, PESSOAREN estiloan egin berria nuen poema izugarri hura hasi nintzaion munduari errezitatzen.